

Elgoibar - 1268. zerb.  
XXX urtea - 2022-12-23



TOKIKOM

BARREN



# Bidean dira



Uzuri optika audio

Ikus zaitzabela beste modu batean  
Gabonetan; oparitu betaurrekoak!

**%15eko deskontua**  
eguzkitako betaurrekoetan.



# Elgoibarko Izarraren TONBOLA

Lehenik eta behin, opariak ematen eta antolakuntzan ibili zareten guztioi eskerrik asko.  
Zuei esker 2.000 opari baino gehiago banatuko ditugu Elgoibarko Izarraren aldeko tonbolan.  
Abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera, Kalegoen plazan batuko gara!



Inprimagailua



Realeko jaka  
eta poltsa



Tentsiometroa



Miniaturazko  
erraldoiak



Maleta



Otarrak



Poltsak



Opari-bonoak



Telebista



Hortzetako eskuila  
elektrikoak



Xurgatzailea



Saskibaloirako  
baloiak



Xagu inalanbrikoak



Argazki kamara



Cava botilak



Mugikorrerako  
inprimagailua



Patinetea



Grill plantxa



Urdaiazpikoa



Bizikleta



Ordulariak

eta sari  
gehiago...

- . eus
- 2. estankoa
- 40-15 Tenis elkarte
- Abatetxe landetxea
- AEK euskaltegia
- Aerotxuri S.L.
- Agurtzane ile-apaindegia
- Ainara Arnaiz
- Aitor Etxeberria
- Aitziber Aranberri (EH Bildu)
- Aitziber Garmendia (Tentazioa)
- Alcorta Forging Group
- Alfonso Guilló
- Alire estetika
- Alkorta Bakailaoak
- Alzola Berazeta baserria
- Amagoia gozo denda
- Amaia fruta denda
- Ametsa kafetegia
- Ana Mosacua
- Ander Mujika
- Andres Alberdi
- Ane San Martin
- Anne Etchegoyen
- Anua errektifikatuak
- Aranburu bitxi denda
- Arauri lurrindegia
- Argia
- Ariana Nogales (PSOE)
- Armueta harategia
- Arriere De La Maison De Izaro
- Arrizabal Elkarte
- Astigarraga Kirolak
- Aterpe taberna
- Azkue argazkiak
- Azpi' S Bags
- Beitia Arriola fisioterapia
- Beitia Arriola hortz klinika
- Belaustegi jatetxea
- Beristain Mekanizatuak
- Berkoa S.Koop.
- Bitxi bitxi
- Bitxi bizi bitxi
- Bizi Baratzea-Argia
- Bizkor bizikletak
- Bronymec S.A.
- Caixabank
- Caramel goxokiak
- Castrillejo estankoa
- Celia taberna
- Cometel S.A.
- Cristina Garcia estetika eta Terapia Naturalak
- Danobat
- Darama bitxiak
- Debabe Udal Euskaltegia
- Debemen
- Denetik bazar txinatarr
- Deuko Izarra
- Dislegi Debabarrena
- Doña Mercedes Legado Murua
- Doña Mercedes okindegia
- Ecenarro lentzeria
- Egur Arte tailerra
- Eibarko txirindulari elkarte
- Eizagirre okindegia
- El Gautxo pizzeria
- Elena ileapaindegia
- Elgoibar Ikastola
- Elgoibarko igeriketa taldea
- Elgoibarko Udala
- Emilia Nogales
- Enean mekanizatuak S.L.
- Eñaut Elorrieta
- Eroski Bidaiak
- Eroski Maala
- Errigora
- Errosario hagin klinika
- Esentzia yoga estudioa
- Esther Iburguen
- Etxepe S.A.L.
- Etxe-Tar S.A.
- Euskaltel
- Euskaltzaleon Topagunea
- Euskaraldia Elgoibar
- Exclusivas Pelegrin
- Fadak ileapandegia
- Farmazabal
- Ferpi modak
- Foterok okindegia
- G&M jantzi denda
- Gaindu
- Galle-Tiak
- Gararock
- Garate jantzi denda
- Garbiñe estetika
- Gertu fisioterapia
- Go Bike
- Gotzon Garate Udal liburutegia
- Hair' s ile-apaindegia
- Haritz Euskal Dantzari taldea
- Herri Eskola
- Hik Hasi
- Hurbil informatika
- Iban Barrenetxea
- Ibarrenea okindegia
- Ibon Serrano
- Idama ile-apaindegia
- Ikus Optika
- ILS
- Ilunpe taberna
- IMH Campus
- Industrias Banat
- Industrias Metala
- Iñigo Azpiroz
- Ipintza margoak
- Iria Modak
- Iriondo altzariak
- Iriondo kirolak
- Irune Arriola Andonegi botika
- Irune Iriondo
- Iturri taberna
- Izakara estudioa
- Izan Inurri proiektua
- Jai Alai taberna
- Jakin fundazioa
- Jakoba Errekondo
- Jasone Osoro
- Javier Elortza
- Jesus Mari Makazaga
- Jon Magunazelaia
- Jose Alberto Eguren
- Jose Antonio ile-apaindegia
- Juantxo burdindegia
- Julia Arregi
- Kala loradenda
- Kapaingoa
- Karkizano
- Kemen belar denda
- Kideok
- Killimon Trail (MTE)
- King-Kong taberna
- Kiñu Tools
- Kukuma
- Kultur Kafea taberna
- Kutxabank
- Laboral Kutxa
- Lagun Taldea txirindulari elkarte
- Lagunak koltxoi denda
- Lanbroa taberna
- Larre okindegia
- Leire ile-apaindegia
- Lete jantzi denda
- Lizagasar sagartokixa
- Maala kafetegia
- Maddi bitxiak
- Magi bitxiak
- Maialen Sanchez Mateos
- Maite Rementeria
- Makina Erremintaren Museoa
- Mancisidor S.L.
- Mapfre
- Maraca Diablo musika taldea
- Marcajes Telleria
- Maria Urizar ile-apaindegia
- Marian fruta denda
- Mausitxa baserria
- Mekanosa
- Mendaroko liburutegia
- Milar Bire elektrogailuak
- Mintxeta atletismo taldea
- Mintxeta taberna
- Miriam Arritokieta
- Moma jantzi denda
- Morkaiko Mendizale Elkarte
- Mte Milling Machines
- Munlet
- Nalai oinetakoak
- Nik Behar Dut
- Noaua! kultur elkarte
- Oin Berri podologia zentrua
- Olaia Martinez estetika zentroa
- Olaia Revert Godoy
- Olaizaga Kiroldegiko taberna
- Olasa Exclusivas S.L.
- On informatika
- Orio Arraunketa Elkarte
- Pagoaga iturgintza
- Patxi Azpiroz
- Pello Arrieta
- Pitxintxu
- Rural Kutxa
- Sahatzu harategia
- Saia Goait
- Salento pizzeria
- Sallobente elkarte
- San Pedro jatetxea
- Sanlo Eskubaloi Taldea
- Sinuóse kultur elkarte
- Suministros Evia
- Surya belardenda
- Swisslan
- Talleres Tximi
- Tantaka taberna
- Txankakua elkarte
- Txillarre ekodenda
- Txomin harategia
- Udal Ludoteka
- UEMA
- Uxue Alberdi
- Uzuri optika
- Vanessa Mateo
- Xarlem Creations
- Xingola
- Yudego farmazia
- Zaloa Arnaiz
- Ziarda harategia
- Zu + Ni
- Zuhatza euskara elkarte
- ...



BELAUSTEGI  
— BASERRIA —

*Etxekoekin batera  
gozatu ospakizunak,  
Lekua har dezatela  
bakeak eta maitasunak,  
Urte berri on, lagunak!*

SAN MIGEL GAINA, 44 . 20870 ELGOIBAR



943 74 31 02

WWW.BELAUSTEGI.COM

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitako erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)

Ane Kortaberria

Ikasle ekintzailea

## Bakarrik egotea, (Gabonetako) tabua



***“Askotan bakarrik  
egon ez arren,  
bakarrik sentitu gaitzke,  
eta alderantziz”***

Urtea amaitzean da, eta honekin batera, Gabonetako film mitikoez gain edo buklean sartzen diren kantez gain, urtean bizitakoaren eta lortutakoaren laburpena egiten dutenen bideoak ikusten hasiko gara berehala, handik eta hemendik.

Beraz sentitzen dut halakorik gustuko ez baduzu, baina oraingoan, aurten azpimarratuko nituzkeen lorpen pertsonaletako bat partekatu nahi dut zuekin: “Bakarrik” egotera ausartzea. Hala ere, zera esan nahi nuke: bakarrik egotea edo bakarrik sentitzea ez dela, noski, gauza bera. Askotan bakarrik egon ez arren, bakarrik sentitu gaitzkeelako, eta alderantziz.

Umetatik jendez inguratuta egotera, eta batez ere, aspertu ez gaitzen, alde guztietatik estimulu ugari jasotzera ohitzen gara. Ni neu horrela aritu naiz uneoro, gehiegizkoa izan den arte. Modu horretan ikasi dut, batzuetan, geratu, arnastu eta norberari beharrezko muga batzuk jartzea komeni dela. Eta bestetik, ikusi dut zein ona den norberaren beldur, indargune eta nahiak aztertuta, bakarrik egotera ausartzea.

Aurten lehenengo aldiz bidaiatu dut bakarrik: lehenengo Hego Koreara egindako bidaiari, eta bigarrena Txekiara egindakoan. Bi egoeretan, hainbat oztoporri egin behar izan diet aurre, eta zalantzarik gabe, sekulako ikasketa izan da niretzat! Adibide huez gain, inoiz egin izan ez ditudan gauzak aplikatzen hasi naiz herrian ere. Orain arte, gezurra dirudien arren, ez naiz inoiz ausartu mendira bakarrik joaten eta ziurtatu diezazueket pauso hori ematea izugarrizko ahalduntze esperientzia izan dela!

Hortaz, Gabonen gaira bueltatuta, argi dago garai hauetako ekintza asko taldean egiten ditugula, baina ziur badaudela, batetik, Gabonak bakarrik pasatzea erabaki dutenak edo tokatu zaienak eta badaudela, bestetik, Gabonetan bakarrik sentitzen direnak. Beraz, zauden egoeran zaudela, nire gomendioa da: ikastea bakoitzak norbere buruarekin gustura egoten, batzuetan zaila izan ohi den arren. Besterik gabe, urte berri ona opa dizuet. Gabon zoriontsuak izan ditzazuela!

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako enantzikun. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

-----

## Oharra

Eskuartean duzun hau da 2022ko azken alea. Eguberrietako oporren ostean, urtarrilaren 2an itzuliko gara lanera, eta hilaren 6an jasoko duzue hurrengo zenbakia. Zorionak eta urte berri on!

BARREN



*Eguberri zoriontsuak eta urte berri on!*

**Euskararentzat bidea ez da erraza eta leuna; hala eta guztiz ere, argituko da noizbait bere etorkizuna. Hizkuntza dugu herriak duen benetako ondasuna; Urte Berriak dakarkiola geureari osasuna.**

**DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA**

Aita Agirre, 3, 3. solairua – 20870 ELGOIBAR  
943 742 731  
udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus



Zuen kegak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112



688 655 658



### Jendeak edozer botatzen du ibaira:

"Ibaira begiratu eta egunetik egunera hondakin gehiago ikusten da. Ibai inguruko terrazetako mahai, aulki edota eguzkitakoak noiznahi egoten dira uretan, eta azkena, erosketak egiteko karroa izan da. Egun pila batez egon zen King-Kong zubiaren azpian, euriaren eraginez ibaia hazi zen arte. Auskalo non dagoen orain".



**San Lazaro aurreko zebrabide ingurua oso iluna da?:** "Zebrabidea gurutzatzen ari nintzela ia-ia harrapatu ninduen auto batek. Ilun zegoen ordurako, eta ni ere arropa ilunez jantzita nengoen, baina hala ere, ingurune horretan argi gutxi dagoela iruditu zitzaidan. Auto gidariak ez ninduen ikusi, eta berak ere sustua hartu zuen. Azkenaldian, oro har, herriko farolek argi gutxi ematen duten sentsazioa daukat".



### Txalo bat gure musikariei:

"Zein gustura egon ginen Makis 37 taldeak Kultur Kafean eman zuen kontzertuan, eta baita Maraca Diablok Durangoko Azokan eman zuen zuzenekoan ere. Elgoibartarrak gogotsu dabilta musikaren kultura sustatuz. Gora EME, txalo bero bat eta segi horrela!"



### Txalo bero bat 35 urtez Gabonetako jaiotza lehiaketa antolatzen jardun duen

**Elgoibarko Parrokiako katekisten taldeari:**

"1987an antolatu zuten estreinakoz, eta ez dute hutsik egin gaur arte. Horrelako ekintzen atzean izugarritzko lana dagoela jakina da, eta boluntario talde batek antolatzeak izugarritzko balorea du. Mila esker guztiagatik!"



## Nuala elkarteak jaso du Igeriketa Erronka Solidarioan batutako dirua, 340 euro pasatxo



**H**irugarren urtez egin dute Igeriketa Erronka Solidarioa Elgoibarren, abenduaren 17an, eta aurten batu duten dirua Nuala elkarteak jaso du. Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak eta Elgoibarko Igeriketa Taldeak antolatu zuten ekimena, elkarlanean, eta parte hartu zuten guztien artean 84.000 metro egin zituzten igerian, 3.360 luze gutzira. Ekimenera batutakoek ekarpenari esker, 340,40 euro bildu zituzten eta diru hori da Nualak jaso duena. Eta Nualak esker on hitzak izan ditu ekimenean parte hartu zuten guztientzat, bai eta antolatzaileentzat ere.

Igeriketa Solidarioa Olaizaga kiroldegia eratek irekitzeko egunaren barruan antolatu zuten,



arratsaldean. Goizean, puzgarriak jarri zituzten igerileku handian, umeeak jolasteko, eta igerileku txikian, kanoa txiki batzuk ipini zituzten txikientzat.

### Gabonetan herriko dendetan erosteko kanpaina hasi dute Mendaron

Gabonetako kanpaina jarri du martxan Mendaroko Udalak herriko merkatariekin batera. Urtarrilaren 8ra arte, kanpainara batutako hamalau establezimendutan txartel bana banatuko diete bezeroei, hamar euroko erosketa bakoitzeko. Txartel horietako bakoitzak zenbaki bat izango du, zozketa nagusirako, baina aldi berean horietako txartel batzuek aparteko

saria ere izango dute, bezeroek dendan bertan momentuan jasotzeko. Izan ere, establezimendu bakoitzak 10 eurora arteko hamar sari banatuko ditu, eta horretarako, Udalak 100 euroko laguntza emango dio establezimendu bakoitzari. Zozketa nagusia urtarrilaren 13an (barikua) egingo dute, eta sariak udaletxean bertan jaso beharko dituzte saridunek, 8:30etik 14:00ak bitartean.

### Lokala ireki eta alkategaia aurkeztuko du Elgoibarko EHBilduk eguenean

Maiatzean egingo diren hauteskudeei begira, abenduaren 29an (eguna) lokala zabalduko du Elgoibarko EHBilduk Santa Ana kaleko 3. zenbakian, eta Aitziber Aranberri beren alkategaia aurkezteko

ere baliatuko dute momentua. Ekitaldia 19:30ean hasiko da eta herritar guztiei irekia egongo da. EHBildutik jakinarazi dute mokadu bat ere egingo dutela bertan biltzen diren guztiekin batera.



# Abenduaren 31n izango da aurten Gabon Zahar feria



**D**ena prest dago Gabon Zahar feriarako. Abenduaren 31n izango da, eta egitarau zabala prestatu dute Udalak eta herriko zenbait eragilek. Goizean goizetik baserrietako produktuak dastatzeko eta erosteko aukera izango da, eta 11:00etatik aurrera Eusko Label markako saheski pintxoak jarriko dituzte salgai Elgoibar Ikastolako txosnan. Baserriko lan-tresna eta animaliarik ere ez da faltako, eta Maalako parkean, Elgoibarko artisauen lanak egongo dira ArTalderean eskutik. Baltzola eta Lagunak trikitilariak jarriko dute kalean musika giroa, eta udaletxeko pleno aretoan Uxue Alberdi, Mikel Mendizabal eta German Meabebasterretxea jardugo dira bertsoan.

Gabon Zahar ferian, bestalde, barazki, fruta eta gazta lehiaketak ere egiten dira, eta azken honek pisu berezia dauka, urteko gazta onena aukeratzeko lehiaketa izaten delako. Urteko beste ferietan saritutako gaztagileak izango dira lehian, eta horien artetik aukeratuko dute txapeldunen txapelduna. Aurten 11 partaide izango dira: Unai Lekuona (Araia), Jesus Mari Ansola-Mausitxa (Elgoibar), Azkarra (Galarreta), S.C. Kortaria (Lekaroz), Joseba Insausti (Ordizia), La Leze (Ilarduia), Larrabe-Agiñiga (Amurrio), Santamañe (Markina-Xemein), Patxi Lopez de Uralde (Larrea), Beñat Egaña (Mutriku) eta Aizpea (Olaberria).

Aldarrikapenerako eta elkartasunerako tarterik ere izango da feria egunean: Karakate Bizirik eta Elgoibarko Baso Biziak taldeek talo solidarioen postua jarriko dute Salento pizzeria alboan, eta gune horretan Green Capital enpresak Karakaten jarri nahi dituen eolikoan kontra sinatzeko eta kamisetak erosteko aukera egongo da.

## Taxi zerbitzu berezia

Elgoibarko Udalak, sanbartolomeetan egindako balorazio positiboaren ostean, gaueko taxi zerbitzua eskainiko du abenduaren 31n. Zerbitzua 02:00etatik 08:00etara emango du, doan, eta herri barruko ibilbideak soilik egin ahal izango dira. Txarriduna hotela dagoen biribilgunean egongo da taxia, eta ezingo da aurrez erreserbarik egin.

## ABENDUAK 31, ZAPATUA

### 8:30-14:30

- Kalegoen plazan: barazki eta fruta erakusketa, lehiaketa eta salmenta.
- Elizpean: baserriko produktuen erakusketa eta salmenta. Gazta eta ezta.
- Aita Agirre plazan: baserriko produktuen, lanabesen eta landareen erakusketa eta salmenta.
- Giza Eskubideen parkean: baserriko produktuen erakusketa eta salmenta.
- Bolatokian, Lekuederren eta Kalebarren plazan: hainbat abereren erakusketa.
- Pedro Migel Urruzuno kalean: burdineria eta nekazaritza-makineria.

**9:00-20:00** Parrokiako jaiotza. Parrokiako kaperan, Elgojaitzak antolatuta.

**10:00** Baltzola eta lagunak trikitilarien kalejira.

**10:00-14:30** Elgoibarko artisauen feria. Maalako parkean. ArTalde elkarteak antolatuta.

**10:30-14:30** Elkartasun taloak. Karakate Bizirik eta Baso Biziak taldeen eskutik, Salento ondoan.

**11:00** Elgoibar Ikastolaren txosnaren irekiera. Labeldun saheski pintxoak banatuko dituzte, Kalebarren plazan.

**12:00** Urteko gazta onenaren lehiaketa. Udaletxeko pleno aretoan, Kalamua elkarteak antolatuta. Lehiaketak irauten duen bitartean, Uxue Alberdi, Mikel Mendizabal eta German Meabebasterretxea bertsolarien jardunaldia.

**12:30** Plazara Dantzara emanaldia. Lekuederren. Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatuta.

**13:00** Bertsolariak: Uxue Alberdi, Millan Telleria eta German Meabebasterretxea, Udaletxeko Areto Nagusian.

**13:30** Udaletxeko Areto Nagusian, fruta, barazki eta gazta lehiaketaren sari banaketa.

**19:00** Kittu taldeak herriko kaleak girotuko ditu. Irteera: Kalegoen plazatik.

## Gazte Emantzipazio Plana aurkeztu du Udalak

Leau urterako Gazte Emantzipazio Plana aurkeztu du Elgoibarko Udalak, bost ardatz estrategiko dituena. Arduradunek zehaztu dute parte-hartze prozesu baten emaitza dela eta guztira 264 elgoibartarrek hartu dutela parte prozesuan. Adinari erreparatuta, horietatik 104 lagun 18 eta 24 urte bitartekoak dira eta gainerakoak 25-35 urte bitartekoak eta hiru parte-hartzaitetik batek baino gehiagok (%37) goi-mailako ikasketak amaituta dituzte.

2017az geroztik Elgoibarko Udalak gazteen emantzipazioa bultzatzeko politikak ezarri ditu. Horretarako, Gaztelagun laguntza-programaren dirulaguntza osagarrien lerro bat sortu du Udalak, 18 eta 34 urte bitarteko gazteentzat, baldin eta programa horretan jasotako gehieneko diru-sarrerak gainditzen badituzte, eta 30.000 eurotik beherakoak badira. Laguntza horien bidez, azken bost urteetan, 89 pertsonak jaso dituzte hileko 250 eurora arteko laguntzak, Elgoibarren etxebizitza

bat alokatu ahal izateko. Laguntzok hiru urterako epe muga dute. Era berean, Bizigune programak Elgoibarren ezarpen handia duela nabarmendu dute udal agintariek. Bizigune Etxebizitza Hutsen Programaren helburua hutsik dauden etxebizitzak eskuratzea eta alokairu babestuaren bidez merkaturatzea da.

Elgoibarko etxebizitza-parkea 5.600 etxebizitza ingurukoa da. Horietatik %85 lehen etxebizitza moduan erabiltzen direnak dira, eta gainerakoak bigarren mailakoak edo hutsik daudenak. 2021eko azken datuen arabera, alokairu-kontratuen batez besteko errenta 504 eurokoa da, eskualdeko prezioa baino 21 euro txikiagoa, eta Gipuzkoako batez bestekoa baino 210 euro txikiagoa, Gipuzkoako alokairu-kontratuen batez besteko errenta 714 eurokoa baita. Elgoibarren salgai dauden etxebizitzaren batez besteko prezioa, berriz, 2.198 eurokoa da metro koadroko [Gipuzkoako batez bestekoa 2.900 eurokoa da].

## Ospitale eta anbulatorio atarietan protestak egin dituzte Osakidetzan



Osasun sistema publikoaren aldeko protesta ziklo bat hasiko zutela iragarri zuten astelehenean Osakidetza zuzendariak, eta atzo egin zuten deialdiaren ondorengo lehenengoa. "Eusko Jaurlaritzaren propagandak ezin du ezkutatu jada herritarrek lehen pertsonan jasaten ari diren egoera", salatu dute. Osasun Saila osasun sistema "desegiten" ari dela zabaldu dute eta lan baldintzak

"etengabe eskasten". Osakidetza zuzendaritzari "jarrera inposatzailea" izatea leporatu diote eta eta Mahai Sektoriala informatzeko bakarrik erabiltzea; ez dutela negoziatzeko aukerarik ikusten alegia. Irudia Mendaroko ospitalean atzo egindako protestakoa da, baina Elgoibarko eta Mendaroko anbulatorioen atarietan ere egitekoak zituzten protestak, eguerdian.

## Eizagirre okindegiak irabazi du erakusleiho lehiaketako lehen saria




**G**abonetako erakusleiho lehiaketaren berri eman dute Udaleko arduradunek: 21 saltokik hartu dute parte aurten, eta Eizagirre okindegia izan da irabazlea. 300 euroko erosketa-bonoa jasoko du, parte hartu duten establezimenduetan gastatzeko. Bigarren saria Cristina Garcia estetika zentroarentzat izan da, eta honek 200 euroko erosketa bonoa jaso du. Herritarren saria Leire ile-apaindegiarentzat izan da, eta honi 100 euroko erosketa bonoa eman diote saritzat. 1.575 boto eman dituzte herritarrek, eta horien artean 50 euroko erosketa bonoa zozkatu dute: Nerea Gorostiza izan da sariduna.

## Santa Ana kaleko horma irudia, prest



Partaidetza prozesu bidez aukeratu zuten herritarrek Santa Ana kale hasieran dagoen etxebizitzaren horman margotzeko horma irudia, eta Pablo Astrainen *Ibai Berria* lanak jaso zituen boto gehien. 980 bototatik, 445 eskuratu zituen proposamenak. Azken asteotan ikusi ahal izan da Astrain bera horma irudia egiten, eta dagoeneko bukatu du lana. Ingurune horrek itxura berria hartu du.

## Lokal hutsei beste erabilera bat emateko kanpaina abiatu du Elgoibarko Udalak



Elgoibarko Udalak, herriko lokal hutsak berpizteko helburuarekin, lokal horiek erosteko edo alokatzeko animatzen dituzten esaldiez osatutako irudiak jarri ditu erakusleihoetan. Erdiguneko kaleetan 52 lokal huts daude, eta horietatik, 26 lokalek hartu dute parte kanpaina honetan. Zortzi erakusleihok gazteleraz jarri dute iragarkia, bik elebitan eta beste guztiek euskaraz. Irudiez gain, jabeekin harremanetan jartzeko telefono eta bestelako bideak ere ageri dira karteletan. Udalaren helburua da erdiguneko lokalei bizia ematea.



## *Sebastiana Sodupe Esnaola*

2022ko abenduaren 19an hil zen, 93 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Nahiz eta bihotza geldirik izan  
eta begiak itxirik,  
guretzako beti  
iraungo duzu bizirik.***

Etxeoak



III.URTEURRENA

## *Ion Gabilondo Garate*

2019ko abenduaren 27an hil zen, 55 urte zituela.

II.URTEURRENA

## *Juan Cruz Gabilondo Muguerza*

2020ko abenduaren 10ean hil zen, 92 urte zituela.




X.URTEURRENA

## *Salvador Izagirre Bernedo*

2012 abenduaren 31n hil zen, 61 urte zituela.

***Iada hamar urte neguak izoztu ginduenetik,  
baina beti egongo zara  
gureoroimenaren epelean.***

Familia



Eskertzak eta urteurrenak **943 743 704 / 943 744 112**  
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

## Beste elgoibartar batek ere salatu du Don Andoni izeneko abadeak sexu abusuak egin zizkiola 7 urte zituenean

**A**bade batek duela 60 urte Elgoibarren egin zituen sexu abusuen berri eman zuen *Berriak* joan zen astean eta soka ekarri du albisteak. Isabel Barrutia elgoibartarrak salatu zuen 12 urte zuzkalda -1966an- Don Andoni izeneko abadeak sexu abusuak egin zizkiola eta 40 urte egin zituen arte ezin izan zuela barruan zeramana berbaz adierazi. BARRENEKIN harremanetan jarri den beste emakume batek baieztatu du "gauza jakinekoa" zela Don Andonik sexu abusuak egiten zizkiela umeei eta berari ere sartu ziola eskua 7 bat urte zituenean, eta ez behin. Parrokiako arkupeetan izan zen beti, Leku-Eder aldera. Garai hartan, ume asko ibiltzen zen arkupeetan. Ohiko jolastokia zen umeentzat, eta gainera, Ikastolako umeek ere parrokiako lokal batean jasotzen zituzten orduan eskolak. Biktimak kontatu du han egoten zela Don Andoni abadea arkupeetan, "zain". "Hantxe eraso zidan niri, behin baino gehiagotan, eta ez dut sekula ahaztu, baina Isabelen testigantza jakin arte ez naiz ausartu kontatzera. Oso ausarta izan da Isabel eta eskertu nahi diot eman duen pausoa, beste batzuei barrua askatzeko bidea eman digulako. Ziur naiz biktima gehiago badirela, predatzaile bat zelako abade hura. Badakit emakume batzuek kargu hartu zutela eta ziur naiz horregatik eraman zutela Elgoibartik ere. Baina horixe, lekuz aldatu baino ez zuten egin. Esango nuke neskei erasotzen ziela".

Don Andoni Elgoibarko elizako apaiza zen garai hartan. Andereño Anitaren eskolan ikasten zuen Isabel Barrutiak, San Roke auzoan zegoen eskolan, eta Don Andonik ematen zien latina. Abadea San Frantzisko kalean bizi zen apopilo, gaur Landa harategia dagoen ganean, eta hantxe abusat

zuen Isabel nerabeaz, zigortuta hara joanarazi zion egun batean. "Haren etxera joan nintzen igande hartan. Sartu nintzen, eta esan zidan bere ganean esertzeko. Eskua sartzen hasi zitzaidan izterretatik, eta ukituak egiten. Ni beldurtuta nengoen, paralizatuta. Esaten dudanean 'paralizatuta', hori da: guztiz paralizatuta», oroitu du Barrutiak, *BERRI*Ari egindako adierazpenetan. Lagun artean

askotan hitz egin dute gaia zela zioen, eta jardun gara galdezka herrian. Inor ez da gehiegi harritu, baina isiltasuna handia da gai honen inguruan.

Testigantzon harira Elizara ere jo dugu galdezka. Elgoibarko parroko Bitoriano Etxabek "gaitzespen irmoa" agertu zuen joan zen barikuan, dei baten bidez Isabel

Barrutiaren lekukotzaren berri izan zuenean, eta "jokabide zuzena" izateko eskatu zion Elizari. Ia aldi berean, Elgoibarko Udalak adierazpen instituzionala onartu zuen, aho batez. Udalak biktimekiko "jarrera argia eta sendoa" agertu du idatzi horren bidez, eta "maitasun, babes eta elkartasunik zintzoena" helarazi die biktimari eta haren gertukoei. Era berean, haien esku jarri ditu Udalaren zerbitzu guztiak. Haurren kontrako sexu indarkeria matxismoaren emaitza dela azpimarratu dute Udaletik eta horren kontra ezinbestekotzat jo dute politika publikoak garatzea eta gizartea isilik ez gelditzea. Barrutiak salatutako kasuaren modukoak ezin direla erantzun gabe gelditu jaso du Udalak eta nabarmendu du erasotzaileek ez dutela lekurik Elgoibarren. Azkenik, gainerako instituzioei "hartu beharreko neurriak hartzeko" eskatu die eta gertakari hauei argi egiteko orduan Udala bidelagun izango dutela esan.



## 2022 ARREITURRE INSTITUTUA



Marrazkiaren Egilea: Claudia Arrillaga Zapparoli (2. Batxilergoa)

## GABON DESBERDINAK

Konturatu orduko Gabonetan gaude kaletako argiak jartzeko prest daude jende asko bezela irrikitan zaude zuhaitza ipintzeko jada prest baikaude.

Oraindik ez dut pentsatu zer jantziko dudan ez dakigu non gauden negu ala udan klima aldaketakin danok gaude dudan eguraldian plana nolakoa izango dan.

Oin dala aste batzuk hondartzen geuden gu neguan han pasatzeko asmoa daukagu posible izango da egin nahi badugu aurten opari gixa bikiniia dugu.

Hondartzan egon ginen atzo eguerdian Olentzero zegoen astoan gainian laster hasiko dira mendira bidiam Mari Domingi dago pozik bikiniian.

Egilea: Uxue Altzerreka Odriozola

# lizardi

INGENIERÍA  
DISEÑO  
CONTROL

*Zorionak eta Urte berri on!*

Olaso industriagunea - Olaso kalea, 15-L. 67 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 741 312 - [www.lizardi.net](http://www.lizardi.net)



 **GABILONDO**  
INMOBILIARIA Y URBANISMO

**Edurne Gabilondo Loyola**

Zuzenbidean litzentziatua  
Higiezin jabetzako agentea  
Higiezin sektoreko peritu ofiziala

[www.inmobiliariagabilondo.es](http://www.inmobiliariagabilondo.es)

San Frantzisko 51, behea - Elgoibar

**943 744 467**

*Gabon zoriontsuak!*

# 22 KIROLARI SARITU DITUZTE

✍ Ainhoa Andonegi / 📷 Asier Orbea

Azken urtean nabarmendu diren kirolari, entrenatzaile, laguntzaile, zuzendaritzako kide edo babesleak saritzen dituzte Udal Kirol Patronatuak eta herriko kirol taldeek elkarlanean antolatzen duten Kirol Federatuaren Urteko Sarietan, eta aurten 22 lagun nabarmendu dituzte. Sari banaketaren aurretik, mahai-inguru bat izan zen, Uxo Irigoien, Mikel Lizarralde eta Ibon Oregirekin. Bizitzan era batera edo bestera kolperen bat jaso duten kirolariak dira hirurak, eta kirolaz eta bizitzaz hitz egin zuten. Orriotan bildu ditugu guztiak.



*Elgoibarko kirol federatuko saritu guztiak, musika eskolako auditoriumean.*



*Uxo Irigoien, Mikel Lizarralde eta Ibon Oregi, mahai-inguruan.*



**Jabier Osoro** (Hiru Txirlo Elkarte)



**Abel Arriaga** (Morkaiko mendizale elkarte)



**Joseba Iriondo** (Sigma)



**Jose Mari Egaña** (La Union ehiza elkarte)



**Iñaki Gorosabel** (Lagun Taldea, txirrindularitza)



**Josu Ansoa** (Elgoibarko igeriketa taldea)



**Beñat Arrizabalaga** (Lagunak Pilota Eskola)



**Eñaut Mugarza** (Elgoibarko saskibalo taldea)



**Createch Medical** (Zubi Ondo xake taldea)



**Jose Luis Diez** (Mintxeta atletismo taldea)



**Uxue Etxeberria**  
(Gimnasia erritmikoa. Patronatuaren saria)





ako Probalekua elkarte



**Jose Ramon Cabello** (Zarta arku tiraketa)



**Jon Aierdi** (Sanlo eskubaloia taldea)



**Jon Basurto** (C.D. Elgoibar futbol taldea)



**Ignacio Muguerza** (Olaizaga karate kirol taldea)



**Anartz Mora** (Egokran judo taldea)



**Jose Miguel Carton** (40-15 tenis eta padel taldea)



**Javier Castro** (Urbizi urpekaritza taldea)



**Eneko Sanz** (Urnobitza moto kluba)



**Laura Rodriguez eta Iris Abarrategi**  
(Mendi lasterketak. Patronatuaren saria).



**Josean Agirre** (Igeriketa. Patronatuaren saria)

# HRE HIDRAULIC: 40 URTEZ BALIOA ERANSTEN

✍ Ainhoa Andonegi / 📷 Asier Orbea

**1982an sortu zuten gaur egun HRE Hidraulic izenez ezagutzen dugun enpresa. Hidraulic Ring izena ipini zioten orduan, eta Alemaniako enpresa baten babesean ekin zuen ibilbidea. Lau langilerekin zabaldu zuten Elgoibarko delegazio hura, Pedro Mugurutza etorbideko lokal batean. Gaur egun 25 bat langile dira, eta Ibaitarte industrialdean daude. 40 urte bete dituzte hidraulika alorrean lanean, eta aurrera begirako berrikuntzak lantzen dihardute, etengabe.**

**1** 982. urtea zen. Alemaniako enpresa batek Katalunian zeukan langile bat, Joaquin Solano, lan komertziala egiteko eta euren produktua Espainian saltzeko. Produktu hura makina-erremintari lotuta zegoen erabat, eta pentsatu zuten Euskal Herrian zabaldu behar zutela delegazio bat, Espainiako makina-erremintako enpresen %70-80 inguru Euskal Herrian zeudelako. Elgoibar aukeratu zuten kokalekutzat, garai hartan ere, makina-erremintaren hiriburua zelako. Joaquin Solano bera izan zen lehenengo gerentea, eta harekin batera jardun zuen enpresaren sorreran Jose Angel Alberdik (Eibar, 1960), gaur egun HRE Hidraulic enpresako industri-aditua denak. Bera da sorrera hartatik geratzen den langile bakarra, eta berak azaldu dizkigu enpresaren nondik norakoak. Pedro Mugurutza kaleko 21. zenbakian hasi zuten bidea, Alemaniako Hidraulic Ring enpresaren babesean. Garai hartan ez zegoen horrenbeste industrialde Elgoibarren eta enpresa asko zeuden herri barruan, etxebizitzien azpikaldeetako lokaletan. Ekintzaileak izan ziren, eta ausartak. 22 urte zituen Alberdik, eta gogoan dauka garai hartan enpresak sortzea ez zela erraza. "Gaur




*HRE Hidraulic enpresako langileen familia-argazkia.*

**1982an sortu zuten enpresa Hidraulic Ring marka alemaniarren babesean. Pedro Mugurutzako etxepe batean hasi zuten ibilbidea eta 1988an lekualdatu ziren Ibaitarte industrialdera.**

egun laguntza gehiago daude enpresak sortzeko, eta erraz sortzen dira enpresak. Zailena enpresa horiek mantentzea da. Enpresa asko zabaldu eta ixten dira. Guk lortu dugu 40 urte egitea, eta oso pozik gaude".

1988. urtean Ibaitarte industrialdera lekualdatu ziren, eta 1997an Alemaniako enpresa hartatik bereiztu ziren, HRE Hidraulic enpresa berria sortzeko. Solanok berak zeukan enpresa berri honen zatirik handiena, Jose Angel Alberdik enpresaren %10 erosi zuen eta Iñaki Gutierrezek beste %10. Zati txiki bat komertzial bati utzi zioten. Hiru urtera beste %5 gehiago eskuratu zuten Alberdik eta Gutierrezek, eta holaxe jarraitu zuten Solano jubilatatu zen arte. 2007an hartu zuen erretiroa Solanok 73



**Makina erremintako sistema hidraulikoa lantzen dute, baina beti ere bezeroen behar zehatzetara egokituta. Enpresa handiekin lehiatzeko duten aukera bakarra da espezializazioa.**

urterekin, eta ordutik Gutierrezek eta Alberdik daukate enpresaren zatirik handiena. 25 langile dira gaur egun, gehiengoa gizonezkoak, baina gerentea emakumezkoa da, Esther Velasco: "Ez da ohikoena sektore honetan, baina gu oso pozik gaude berarekin". Enpresaren egitekoa ere definituta dute, eta hori lortzeko dihardute lanean: aberastasuna eta ongizatea sortu nahi dituzte eskualdean, horrekin batera bizilagunen bizi kalitatea hobetzeko. Bezero asko eta desberdinak dituzte, bai Euskal Herrian eta baita kanpoan ere. Euskal Herrian, Errioxan, Kantabrian edota Burgosen saltzen dute gehien, baina baita Madril, Valentzia edo Bartzelonan ere.

Hasieratik hidraulika lantzen hasi ziren; makina erremintarako sistema hidraulikoa sortzen zuten,

baina beti bezeroen behar zehatzetara moldatuta. "Enpresa txikia da gurea, gure lehiakideak gu baino handiagoak dira, eta enpresa handiekin lehiatzeko daukagun modu bakarra bezeroaren beharretara egokitzea da. Guk ezin dugu serie handiko produkzioa egin, eta prezioarekin ere askotan ezin izaten dugu lehiatu, beraz, gure balio erantsia pertsonalizazioa da", azaldu du Alberdik. Produktu berarekin segitzen dute 40 urte geroago ere, baina bide horretan "garapena" egon da. Manufakturatik *mentefakturara* pasatu behar zutela esan zien orain urte batzuk eduki zuten gerente batek, eta hortan saiatu dira. Egin bai, baina pentsatu ere bai, eta pentsatze horretatik lortu dute garatzea. Gaur egun, hidraulikaren barruan ur hidraulika, engrasatzeko hidraulika, energia aurrezteko hidraulika berdea deritzona edota fihazio hidraulika ere lantzen dituzte, baina garapenik garrantzitsuena hidraulikarako sistema didaktikoen alorrean eta digitalizazioan eman dute. Konturatu ziren sektore honetan lan egiteko jendea formatu behar zela, eta Lanbide Heziketarako edota unibertsitaterako materiala sortzen hasi ziren. "Etorbizunerako langileak prestatzeko ezinbestekoa da eskoletan gure

teknologia lantzea". Didaktika alorrean asko saltzen dute atzerrira ere, Hegoameriketara bereziki. 90eko hamarkadan hemen saldu zuten didaktikarako material gehiena, baina gaur egun 25 herrialdetara iristen dira Elgoibarren sortutako materialak, besteak beste, Hegoafrikara, Txinara, Hegoameriketako herrialde gehienetara...

Gaur egun hiru alor lantzen ditu HRE Hidraulic enpresak: industria, didaktika eta digitalizazioa. Produkzio osoa digitalizatu eta euren produktu propioak erakustea dute helburu, bezeroek jakin dezaten makina noiz geratuko zaien. Mantentze prebentiboa landu nahi dute, nolabait esateko. Ikerketa, berrikuntza eta garapen alorrean lan egiten dute unibertsitateekin eta teknologia zentroekin, eta horren barruan *Be cold* patentea sortu dute. "Hotzaren bidez lantzen da mekanizazioa, askoz ere ekologikoagoa da eta ekonomia zirkularra ahalbidetzen du. Pare bat sari jaso ditugu honi esker".

## ETORKIZUNA

Alberdi eta Gutierrez erretiroa hartzeko bidean dira, eta enpresaren etorkizuna bermatzeko erreleboa prestatzen hasiak dira. Proiektu bat prestatu dute, eta horren barruan digitalizazioa lantzen ari dira, bereziki: "Gure ezagutza digitalizatzeko lanean ari gara, etorkizunean hor egon dadin, gure atzetik datozenentzako". 40 urte bete dituzte, eta nahiko lukete beste 40 urte ere betetzea, eta horretarako ari dira lanean. Egoera ez da erraza. Azken urteotan Covid-aren pandemia izan dute, gero Ukrainako gerra, energia eta erregaien garestitzea... Baina Alberdik dio egoera zailak beti izan dituztela, eta gogoan dauka esaterako 1985ean langabezia zenbatekoa izan zen: "Hiru urte ziren guk enpresa sortu genuela eta Eibarko Untzaga plaza langabe gaztez beteta zegoen; %40 inguruko langabezia zegoen garai



*Pedro Mugurutzako enpresan bidea hasi zuten langileak.*



*Iñaki Gutierrez eta Jose Angel Alberdi, egungo bi jabe nagusiak.*

hartan. Gaur egun alde horretatik askoz hobeto gaude". Gobernu eta erakundeek langile berriak hartzeko laguntzak ematen dituztela ere aipatu du, eta uste du hori enpresentzako arnasbidea dela. Hala ere, zailtasunak badirela dio, bereziki globalizazioak ekarri duen lehiakortasuna. Lehen, inguruko enprekin lehiatu behar zela dio, baina gaur egun mundu osoan dituzte lehiakideak, eta eskaintza eskaera baino handiagoa da. Gainera, hemengo enpresa gehienak txikiak dira eta aukera bakarra espezializazioa dela uste du. Espezializazioaren bidetik bete dituzte 40 urte, eta bide beretik jarraituko dute aurrerantzean ere, egunero etorkizuna lantzen.


**Gaur egun hiru alor lantzen ditu  
HRE Hidraulic enpresak: industria,  
didaktika eta digitalizazioa.**

# 2022 urteari errepasoa





■ **URTARRILA:** Benantzio Otaegi parrokoak erretiroa hartu zuen 78 urterekin eta Errege Eguneko mezan agurtu zituen San Bartolome parrokiako eliztarrak. 1993an iritsi zen Otaegi Elgoibarrera Soraluzeko parrokiatik, eta 29 urtez izan da Elgoibarko parroko. San Bartolome eguneko mezan omenaldia egin zioten eliztarrek eta parroko berria ere aurkeztu zuten: Biktoriano Etxabe Aginagalde.



■ **URTARRILA:** Gregorio Vives (Mendaro, 1944-2022) Debabarrenako dantzaren eta Mendaroko azken 60 urteotako historian garrantzi handiko herri-eragilea izan dena hil zen urtarrilaren 5ean. Vivesek Debabarrenako dantzari buruz lotutakoak *Gregorio Santa Cruz dantza maisua* liburuan jasoak ditu Oier Araolaza dantzari eta antropologoak.



■ **URTARRILA:** Urte hasieran Bilbon presoek eskubideen alde egin ohi duten manifestazioa ezin izan zuten betiko moldean egin. Hiri eta herrietara eraman zituzten mobilizazioak urtarrilaren 8an, eta Elgoibarren eta Mendaron ere elkartu zen jendea. Euskal preso guztiak Euskal Herriratzea, gradu progresioan dagoen blokea askatzea eta espetxe baimenak lortzeko zailtasunak kentzea eskatu zuten, besteak beste.

## ELGOIBARKO GABON ZAHARRETAKO FERIA 2022

### Abenduak 31, zapatua





■ **URTARRILA:** Deba ibaiak gainezka egin zuen urtarrilaren 9tik 10erako gauean, eta ohiko lekuetan, Altzolan eta Mendaron bereziki, kalteak eragin zituen urak. Mendaron, Kilimon errekek ere gainezka egin zuen. Hilabete barruan bigarren uholdeak izan zituzten aipatutako lekuetan, baina urtarrilekoan, kalte materialak abendukoan baino txikiagoak izan ziren.

■ **URTARRILA:** Nicholas Kipkorir Kimelik (Kenya, 1998) eta Edimah Jebitok (Kenya, 2001) irabazi zuten Mugertza krosa. 2021ean ez zen krosik izan Elgoibarren, pandemiagatik, eta 2022koa ere segurtasun neurri zorrotzen pean jokatu zuten, baina kros batek behar dituen osagai guztiekin. Euriak eta lokatzak zaildu zuten proba, eta are ikusgarriagoa egin zuten.

■ **URTARRILA:** Euskaltzaindiak *Euskararen gramatika* berri zuten eta abenduan aurkeztu zuen lana Durangoko Azokarako. Gramatika Batzordeak egindako lana izan zen, eta batzorde horretako kide den Jesus Mari Makazaga (Elgoibar, 1965), filologian doktorea, elkarrizketatu zuen BARRENEK. Batez ere, egungo euskaldunak eskura dituen egiturak jaso zituztela zehaztu zuen eta gramatika ez zela arauemailea, arauak aipatzen dituzten arren.



● **08:30etik 14:30era:**

- ❖ Kalegoen plazan: barazki eta fruta erakusketa, lehiaketa eta salmenta.
- ❖ Elizpean: baserriko produktuen erakusketa eta salmenta. Gazta eta ezia.
- ❖ Aita Agirre plazan: baserriko produktuen, lanabesen eta landareen erakusketa eta salmenta.
- ❖ Giza Eskubideen parkean: baserriko produktuen erakusketa eta salmenta.
- ❖ Bolatokiko parkean, Lekuederren eta Kalebarren plazan: hainbat abereren erakusketa.
- ❖ Pedro Migel Urruzuno kalean: burdineria eta nekazaritza-makinaria.

● **9:00etatik 20:00etara,** Parrokiako Jaiotza, Parrokiako kaperan.

● **10:00etatik aurrera,** "Baltzola eta lagunak" trikitilarien kalejira.

● **10:00etatik 14:30era,** Elgoibarko artisauen erakustaldia eta salmenta, Maalako parkean. Antolatzailea: ArTalde.

● **11:00etatik aurrera,** Elgoibar Ikastolak, "eusko labela" duten harakinen laguntzarekin (Armueta eta Ziarda), labeldun saiheski pintxoak eskainiko ditu, Kalebarren plazan.

● **12:00etan,** "Urteko Gaztaren XIV. Txapelketa. Elgoibarko Gabon Zaharretako Saria 2022" Udaletxeko areto nagusian, Kalamua Elkarteak antolatuta.

● **12:30ean,** Lekueder parkean, PLAZARA DANTZARA erromeria. I. Bereziartua Musika eta Dantza Eskolak antolatuta.

● **13:00etan,** Bertsolariak: Uxue Alberdi, Millan Telleria eta German Meabebasterretxea, udaletxeko Areto Nagusian.

● **13:30ean,** Udaletxeko Areto Nagusian, fruta, barazki eta gazta lehiaketaren sari banaketa.

● **19:00etan,** Kittu taldeak herriko kaleak girotuko ditu. Irteera: Kalegoen plazatik.



■ **URTARRILA:** Osasun zentroen atarietan elkarretaratzek egin zituzten, lehen mailako arretaren “kolapso egoera” eta profesionalen “gainkarga” salatzeko. Sindikatuetatik salatu zuten egiturazkoa dela arazoa eta osasun-krisiak larritu egin zuela.



■ **OTSAILA:** Inbasio militarra hasi zuen Errusiak otsailaren 24an, Ukrainako Donbass herrialdea bereganatzeko asmoz. Militarrek Kieven sartu ziren eta gerraren kontrako mobilizazioak hasi ziren mundu osoan, baita Euskal Herrian ere. Elgoibarren eta Mendaron ere elkarretaratzek egin zituzten eta Ukrainarako janaria eta oinarrizko produktuak batzen jardun ziren. Hurrengo hilabeteetan familia ukrainarrak Euskal Herrira iristen hasi ziren, eta horietako bi familia etorri ziren Mendarora.

■ **OTSAILA:** Elgoibarko Udaleko Bizikidetza Batzordeak bultzatutako partaidetza-prozesu baten bidez Pedro Muguruza etorbideari izena aldatu zioten. Urtarrilaren 26ko Osoko Bilkuran onartu zuten Toletxe kalea izena ematea, baina uztaillean aldatu zuten plaka.

<p><b>Osasun gida</b></p> <p>RPS 271/12</p> <p><b>ainhoa</b> fisioterapia</p> <p>Jausoro plaza, 6 behea Elgoibar</p> <p>943 531 953 669 565 745</p>	<p><b>aldaz</b> horts klinikak</p> <p>RPS233/13</p> <p><b>943 366 377</b></p> <p>San Bartolome, 22 20870 Elgoibar</p>	<p><b>NATUR HOUSE</b></p> <p><b>Ainara Iriondo Ansola</b></p> <p>GIZA ELKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA</p> <p>RPS 203/16</p> <p>Taibio Etebarria, 22 Elbar</p> <p><b>677 551 850</b></p>	<p><b>fisio&amp;mas</b></p> <p>Fisioterapia aurreratu eta Kirol Berregokitzea</p> <p>Trenbide kalea, 13</p> <p>943 740 191 / 667 953 698</p> <p>www.fisio-mas.com</p> <p>RPS 177/12</p>
<p>RPS 183/12</p> <p><b>Uzuri</b> optika audio</p> <p>Elgoibar</p> <p><b>943 740 359</b></p> <p>Deba</p> <p><b>943 192 192</b></p>	<p><b>leku eder</b> horts klinika</p> <p>RPS 171/12</p> <p>Elena Herrero Lobo</p> <p>Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar</p> <p><b>943 530 053</b></p>	<p><b>federópticos</b></p> <p><b>ikus</b></p> <p>RPS 65/07</p> <p>San Bartolome, 10</p> <p>Tel.: 943 743 734</p>	





■ **OTSAILA:** Capital Energy enpresak Karakate eta Atxolin artean bi haize-errota handi jartzeko egitasmoa aurkeztu zuen Soraluzeko Udalean eta kezka agertu zuten hainbat herritarrek. Proiektuaren kontrako mugimenduak ere sortu ziren bi herrietan. Elgoibarren, Morkaiko mendizale elkartetik sustatuta, Karakate Bizirik plataforma aktibatu zuten. Hainbat protesta ekitaldi egin zituzten urtean zehar Karakaten bertan, Elosun, bai eta herrian ere. Azaroan, dorre eoliko bat irudikatu zuten Kalegoen plazatik Kalebarren plazara.



■ **OTSAILA:** Mendaroko tren geltokian oinezkoen pasabidea eraikitzeko lanak hasi zituzten, Euskal Trenbide Sarearen enkarguz. Trenbidean dagoen pasabidea kendu eta ordezkatzeko, alde banatan igogailuak jarriko dituztela aurreratu zuten eta bien artean oinezkoentzako gaineko pasabidea eraiki. Trenbide zati bat ere berritzekoa dute.



■ **OTSAILA:** Juanita Arrillaga Garate *Arane II.a* erraketista hil zen otsailaren 18an Mexiko Hirian, 96 urterekin. Emakumeen kirolean aitzindariak izan ziren erraketistetako bat izan zen *Arane II.a*, ahizpa Mariarekin batera. Idotorbeko *Arane* baserrian jaio ziren biak eta jaiotetxearen izena hartu zuten goitizien, pilotan jokatzeko.



# ETXEBERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar

[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)

[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

Kutxak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



■ **OTSAILA:** Julen Zabaleta Barrenetxea *Yulen* marrazkilaria hil zen otsailaren 26an, 101 urterekin. Euskal Herriko eta inguruko eraikin historikoak eta garai bateko ogibide eta tradizioak marraztu zalea zen, eta historialari eta etnografo askoren liburuak ilustratu zituen. Ondare historikoa erretratatu eta marraztu zuen, eta are ondare handiagoa osatu zuen. Altxor horretan badira umore ukituko lanak ere. Aipagarriak dira, esaterako, *Zeruko Argiak* 1960tik 1969ra bitartean haurrentzako argitaratu zuen *Pan Pin* komiki-aldizkarirako egindako lanak, bai eta zenbait elgoibartarri egindako karikaturak ere. Horietako zenbait *Yulen 100 urte* erakusketan jaso zituen Udalak 2021ean.



■ **MARTXOA:** EHUKo Berdintasun Zuzendaritzak Berdintasun Sariak banatu zituen eta horien artean Miren Guillo Arakistain elgoibartarrak jaso zuen IX. Edizioko Micaela Portilla Vitoria saria, ikasketa feministei edo generokoei buruzko tesi onenaren atalean. *Hilekoaren politika eta kultura alternatiboen etnografia bat: genero konfigurazioak, gorputz-ahalduntzea eta ezagutza kolektiboak* izenburupean egin zuen doktorego-tesia.



■ **MARTXOA:** 1974an Elgoibarko Izarra kultur elkarteko presidente izan zen Manolo Zabala hil zen, 92 urte zituela. Ikastolari lotutakoa izan zen bere ardurua nagusia, Elgoibarko Izarrako presidente izan zen garaian.

### ILERAKO ROWENTA SF3210F0 PLANTXA



28 €

10 Bero-doikuntzak  
Zeramika-estaldura  
Lisatua eta kizkurtzeko funtzioa

### PHILIPS S3133/51 BIZARRA KENTZEKO MAKINA



59 €

Buru pibotatzaila malguak  
Ppwercut labana  
Autonomia: 60 min.

### SONY KD50X73KPAEP TELEBISTA



629 €

4K UHD - Smart TV - HDR 10 -  
Bravia Cam - Alexa eta Google laguntzailea  
Dobly vision - HDMI - USB - Bluetooth

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)  
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



■ **MARTXOA:** Martxoaren 31n hasi zen Amurrión Korrika, euskararen aldeko ekimena, eta apirilaren 1ean iritsi zen Elgoibarrera. *HitzEkin* izan zuen lelotzat, eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak omendu zituzten.



■ **APIRILA:** Gotzon Garateri euskarazko esamoldeak batzen lagundu zioten baserritarrak eta haien ondorengoak azkenekoz batu ziren, Elgoibarren, hogeita sei urteko ohiturari azkena emanez. Meza izan zuten lehenengo, eta ondoren, San Bartolome kalera joan ziren, Garateren jaiotetxe aurrera. Han, Angel Ugarteburuk jarritako bertsoak eta *Xalbadorren heriotzean* kantatuz oroitu zuten laguna. 1967an ekin zion baserriz baserri Garatek atsotitzak biltzeari. Euskal Herriko zazpi lurraldeetan ibili zen, eta hogeita hamar urteko lanaren ostean, 27.000 atsotiz baino gehiago bildu zituen, horietako 14 mila bat euskarazkoak.



**Softlan**

Albitxuri Industrialdea, 3i  
943 748 105


info@softlan.biz - <https://eu.softlan.eus/>

*Gestio programetan  
gaude espezializatuak.  
Ticket Bai-rako, prestatuak.*

*Gabon zorientsuak!*



**Gabonetan egin etxeko guztiei tokia!  
Ikusi gure mahai eta aulki tolesgarriak.**



**4 aulki  
152m-tan**

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



■ **APIRILA:** Euskadiko Koparako proba puntuagarria izan zen Mendaroko Kilimon Trail mendia lasterketa. Bi proba izan ziren aukeran, motza eta luzea. Luzean, Javi Goitia eta Onditz Iturbe gailendu ziren, baina ez zuten Bartłomiej Przedwojewski poloniarren (1:54:43) eta Maite Maiora mendarorren (2:16:14) errekorrak ontzerik lortu.



■ **APIRILA:** Gipuzkoako Dislexia Elkartetik, Debabarreneko Dislexia Elkartea sortu zuten, zenbait familiak dituzten beharrei erantzuteko. Elgoibarko guraso talde batek sortu zuen taldea eta zehaztu zuten beren lan esparrua ere Elgoibar izango zela nagusiki, baina bailarako gainerako herrietzat ere zabalik zutela atea. Urriaren 8a da Dislexiaren Nazioarteko Eguna, eta egun horretan kalera irten ziren, dislexia ezagutzera emateko.



■ **APIRILA:** Elgoibarko Musikarien Elkartea aurkeztu zuten jendeaurrean apirilaren 30ean, Maalan. EMEk berak antolatu zuen eguna, eta herriko sei taldek kontzertua eman zuten.





■ **APIRILA:** Historiaurreko bi hilobiren aztarnak topatu zituen Aranzadik Karakateko tontorretik gertu, estazio megalitiko moduan izendatua dagoen eremutik kanpo, eta Gortazar eta Otsoaldasoro izenak eman zizkieten. Jesus Tapia Aranzadiko kideak zuzendu zituen indusketok.

■ **MAIATZA:** BARREN aldizkariaren formatua aldatu genuen. Txikiagoa da orain aldizkaria, baina lehen bezain mamitsua. 30 urte bete ditu aurten astekariak, eta garai berrietara egokitu dugu. Paperaren garestitzeak eraman gintuen bereziki erabaki hori hartzera, baina baita Debabarreneko komunikabideekin elkarlanean aritzeak ere. Bailara mailako proiektua lantzen ari gara, eta paper ereduak berdintzea izan da hartu dugun erabakietako bat.



■ **MAIATZA:** Hezkuntza Mahaia sortu zuten Elgoibarko Udalak eta Hezkuntza Komunitateak. Elkarlana ahalbidetuko duen hezkuntza partaidetza-egitura iraunkorra sortzea, elkarbizitza osasuntsua eta inklusiboa hobetzea eta hezkuntza beharrak identifikatzea du asmoa taldeak, horiei erantzun bateratua emateko.



■ **MAIATZA:** C.D. Elgoibarko bigarren taldeak mailaz igotzea lortu zuen, eta horri esker Erregional mailako gorengo mailan jokatzen dihardu aurten.



**ASESORIA  
GOAR**

**KONTABILITATEA  
AHOLKULARITZA FISKALA  
ASESORIA LABORALA**

San Bartolome, 2 behea - Elgoibar    Tel: 943 742 674 / 943 740 234  
asesoria@asesoriagoar.com                      Faxa: 943 742 129





■ **MAIATZA:** Erraldoien topaketa egin zuten, eta Elgoibarko erraldoiez gain Txantreako, Bergarako eta Bilboko erraldoiak bildu ziren Kalegoen plazan. Mautitxa txarangaren 50. urteurrenaren barruan egin zuten topaketa, eta egun osoko egitaraua prestatu zuten. Jendetza batu zen.

■ **EKAINA:** Elgoibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Andundiak Errezabal egoitza eraikitzeko hitzarmena sinatu zuten. Ane Beitia Elgoibarko alkatea eta Maite Peña aldundiko ongizate diputatuak hartu zuten parte ekimenean. Ondo bidean, egoitzaren obrak 2023an hasia aurreikusi zuten.



■ **EKAINA:** Gipuzkoako eskubaloi kopa irabazi zuten senior emakumezkoen Gaurve eta senior gizonezkoen Alcorta taldeek.





■ **EKAINA:** Uxue Etxeberria gimnastak urrezko eta brontzezko domina bana irabazi zituen Euskadiko Txapelketan. Eibarko ipurua taldeko kidea da Etxeberria.



■ **EKAINA:** June Loidi eta Julen Urruzola eskubaloijokariak deitu zituen Espainiako selekzioak eta urrezko dominak eskuratu zituzten. Loidik Mediterraneoko jokoetan parte hartu zuen eta Urruzola, berriz, Europako txapelketa prestatzeko deialdian sartu zen.



■ **EKAINA:** Roman Garate jesuita hil zen ekainaren 11n, 97 urte zituela. Deustun bizi izan zen urteetan, eta hango unibertsitateko irakasle izan zen. Azken urteak Loiolako erresidentzian egin zituen, eta han hilobiratu zuten, anaia Gotzon Garate bezalaxe.

**BMI**  
bronymec

Termoplastiko eta konpositeetan adituak

**RAMBURU BITXI DENDA**

San Frantzisko, 26  
943 742 535

Erosi zure erregalua Aramburu bitxi dendan eta  
**600€**-ko bi baleren zozketan sartuko zara.

**ZA**  
ZURE ALDE S.L.

Maria de Leyre Blanco Gastesi  
ABOKATUA

Zuzenbide orokorra  
Komunitateen kudeaketa

Jausoro plaza, 3 behea  
688 77 78 R3  
zurealde.elgotbar@gmail.com

**Gabon zoriotsuak!**

# GREMIOEN GIDA

**ELEKTRIZITATEA**

**egoluz** 

ELEKTRIZITATEA S.L.

**Andres: 630 957 345**  
**677 512 462**

Pedro Migel Uruzuno, 14 beheha  
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: **943 200 697**  
ego.luz@hotmail.com

**AROZTEGIA**

**Ulazia**

AROZTEGIA ETA ENBALAJEAK

Albixuri industrialdea, 1-O/ 1-P  
**943 740 547**



**ITURGINTZA**

**SANTANA** 

 Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, beheha  
Elgoibar

**943 740 530 / 605 714 905**  
santanaiturgintza@gmail.com



**AROZTEGIA**

**iraolagoitia**

aroztegia - altzariak - etxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9  
20850 Mendara

**943 756 112**  
**636 497 485**

www.iraolagoitia.com

**ITURGINTZA**

**PAGOAGA S.A.**

**BULEGOA ETA ERAKUSKETA**

Pedro Migel Uruzuno, 8  
**943 740 512**  
Faxa: 943 743 565  
bienda@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com

**BILTEGIA**  
San Antolin, 13 - ELGOIBAR  
taller@pagoagasa.com  
**943 740 279**

**LEIHOAK**

**LODOSO LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223  
lodosofj@gmail.com

**943 743 490**

**AROZTEGIA**

**MAR AROZTEGIA**

Olaso industrialdea, 17 beheha

**943 531 471**  
**609 054 978**

carpinterialmar@hotmail.com




**PINTURA**

**BIOK** dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

**943 741 552**  
**606 431 120**

biok@biokdekorazioa.com

**AROZTEGIA**

**BIENA S.L.**

AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eu  
info@biena.eu



**ERREFORMAK**

**ESTUDIOS ARRILLAGA**

Erosano kalea, 15 beheha - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

**943 744 019**  
**605 713 168**

**Gidan agertzearen onurak!**

 **943 743 704**

 **688 769 657**

**barren.publi@elgoibarkoizarra.eu**

Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk  
20870 ELGOIBAR

**22€** hilan

**12** aldiz urtean

**4.885** euro astero

22 Eren truke, hilero, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian.

**BARREN** astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleiho ikusiena.

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.





■ **EKAINA:** Apustu berezia jokatu zuten Mendaroko 24 gaztek. Taldeka, erreleboka, udaletxeko atletik Gaintxipixara nor azkarrago iritsi zen apustua, eta jokoan zegoena, berriz, ohorea. Alain Zulaika, Patxi Salegi eta Ander Gorostegi izan ziren irabazleak 33:00:12ko denborarekin.



■ **EKAINA:** Irati de Anta Elgoibarko Institutuko ikasleak lortu zuen EAEko notarik onena unibertsitaterako hautaproban. 10etik 9,98ko nota eskuratu zuen eta bera izan zen 12.107 ikasleren artean onena.



■ **EKAINA:** Arbasoen harpea inauguratu zuen Mufomi elkarteak. Hiru urteko lanaren ostean, historiaurrerako bidaiia egitea ahalbidetzen duen koba zabaldu zuten fosil eta mineralen museoaren azpialdeko biltegian.

**Gabon zoriontsuak!**



**Grabados  
LASER 2D**

**Diseinu zerbitzua, grabatua  
eta laser bidezko mozketak.**  
Enpresa zein partikularrentzako lanak.

**Material askotarikoak: egurra,  
kristala, arbel arria, larrua...**

[www.grabadoslaser2d.com](http://www.grabadoslaser2d.com)



**IDAMA  
ILEARPAINDEGIA**  
tlf. 943746026

Bizitza motza da,  
orrazkera aspergarri bat  
eramateko!

**Anima zaitetz !!**

<https://idama.juliolein.metodo.de/es>

idama ilearpaindegia  
idama ilearpaindegia

Antonio Arriaga e-2  
(Santxo Sanxo Ana kaltetik)  
EUGOBIAN

**IAI ZORIONTSUAK  
OPA BIZKIZUEDE!**



■ **EKAINA:** Mendarorako beste sarbide bat eraikitzeko aurreproiektua aurkeztu zuten. Gipuzkoako herri bakarra da gaur egun herrigunera sartzeko zubi bakarraren menpe dagoena. Foru Aldundiko Aintzane Oiarbide eta Iñaki Arregi Mendaroko alkateak egin zuten aurkezpena.



■ **EKAINA:** Lehen Nazional Mailan jokatzeko gonbidapena jaso zuen Alcorta Eskubaloi taldeak. Igoera fasean txapeldunorde izan zen, baina Espainiako Eskubaloi Federazioaren gonbidapenari esker Lehen Nazional Mailan jokatzeko dihardu.

# 1.800 €

BANATUKO DITUGU  
10 EROSKETA TXEKETAN

## GABON ZORIONTSUAK !

Elgoibarko  
bizi, erosi  
herriak irabazi

**TXANKAKUA**  
ELGOIBARKO MERKATARIAK

**Urtarrilaren 3an**  
Elgoibarko  
kaleetan zehar  
**TXU-TXU TRENA**  
izango da!



■ **UZTAILA:** Errotaberriko igogailua jartzeko lanak hasi zituzten. Hondatuta zeuden eskailera mekanikoen ordezkari igogailu publikoa jarriko du Udalak. 457.322,78 euroko inbertsioa egingo dutela jakinarazi zuten Udaletik, eta 2023. urte hasierarako amaitzea aurreikusten zutela.



■ **UZTAILA:** Zerua eta garia garagardo azoka antolatu zuten Mendaron, Ukainarekiko elkartasunez. Lau eguneko garagardo festa izan zen, eta bi helburu izan zituen: Ukrainako egoeraren berri ematea eta Ukrainarako dirua biltzea. Herritarrek oso ondo erantzun zuten eta jende asko ibili zen azokan.



■ **UZTAILA:** Ioritz Leiaristik irabazi zuen LaRoita kuadrillakoen erronka, eta errekor berria ezarri zuen gainera. Antxon De la Aradak, Ivan Rogelek eta Ioritz Leiaristik hartu zuten parte. Mutrikuko portuan igerian hasi, bizikletaz Kalbariotik Elgoibarreraino etorri eta Kalegoen plazatik Karakatera igotzea zuten egin beharrekoa. 1:23:56 denbora egin zuen Leiaristik, eta aurreko urtean Iker Odriak jarritako marka ondu zuen (1:24:50).

**HAIR'S** lleapaindegia  
San Bartolome, 4 beheak  
943 531 279

**Abenduaren 24an eta 31n,  
9:00etatik 15:00etara, zabalik!**

**Astearteetan jubilatuen eguna.**

**Gabon zoriontsuak guztioi!**

Orraztu Moztu  
**13€ 13€**  
Garbitu, moztu  
eta orraztu  
**26€**

**TXILLARRE** eko denda

ETXERA  
ERAMATEKO  
ZERBITZUA

San Bartolome kalea, 29, beheak-Elgoibar

**635 008 496**

**Baserriko produktu ekologikoak.**

**Garaian garaiko otarrak.**

**Aukera zabala elikagai ekologikoetan.**

**Kosmetika biologikoa.**

**Banaketak: Ermua, Eibar, Elgoibar, Mendaro.**

[p.ekologikoak@gmail.com](mailto:p.ekologikoak@gmail.com)




■ **UZTAILA:** Urazandiko jaiak berreskuratu zituzten. 80ko hamarkadan antolatu zituzten bi urtez auzoko jaiak, eta 40 urteren ostean, berreskuratu dituzte aurten jaiak. Asteburu osoko egitaraua prestatu zuten, eta jende asko gerturatu zen auzora.

■ **ABUZTUA:** Elgoibarko erraldioen miniaturak aurkeztu zituzten. Altzola dorretxeko jaun-andreak aukeratu zituzten: Aszensio Altzola eta Katalina Ibarra. Olentzero enpresak egin zituen, eta Azkue argazki dendan eta Pitxintxun jarri zituzten salgai.



■ **ABUZTUA:** Elgoibarko dultzaineroek bota zuten jaiei hasiera emateko txupinazoa. 50 urte bete dira aurten Txomin Mujika, Ricardo Gorriti eta Victor Zubiaurre *Balle* estreinako z kalera irten zirenetik, eta urteurren horren harira, Txomin Mujika, Ricardo Gorriti eta Aitor Nova igo ziren udaletxeko balkoira San Bartolome bezpera Egunean. Dultzaineroen urtea izan da 2022a, eta jaiei hasiera emateaz gain, Altzolatarren Dorretxea Filatelia elkarteak ere dultzaineroak omendu zituen urtarrilean, eta irailean, Dultzaina Eguna ospatu zuten.





■ **ABUZZUA:** Abuztuaren 8ko goizaldean, kamioi artikulatuta bat 634 errepidera amildu zen A-8 autobidetik, Elgoibartik Maltzagarako bidean, autopistako zubi parean. Ezbeharraren ondorioz, kamioian zihoan 61 urteko gizonezko bat momentuan bertan hil zen, eta gidaria, 45 urteko gizonezkoa, larri zauritu zen. Kamioiaren kabinak Marokoko matrikula zuen eta erremolkeak, Frantziakoa. Errepidea itxita izan zuten eguerdira arte.



■ **IRAILA:** Leire Garatek hirugarren aldiz irabazi zuen Kontxako Bandera Oriorekin, eta arrauneko Euskotren Liga ere irabazi zuen. Aurreko urteetako garaipenak baino gehiago baloratu zituen aurtengoak.



■ **IRAILA:** Felix Etxeberria *Parapan* hil zen irailaren 2an, 95 urte zituela. Euskaltzale amorratua izateaz gain, ekintzaile saiaturia eta langile nekazaria izan zen Parapan, eta egindakolanaren aitortpen gisa Gure Baloak saria eman zion Debegesak 2017an. Herrigintzan, euskalgintzan, kooperatibismoan, memoria historikoaren berreskuratze lanetan... akuilu izan zen azkenera arte.

**ESARRI AUTOAK** ZERBITZUA  
 MARKA GUZTIAK  
**943 741 480**  
 Aitor: 606 975 730  
 Anton: 680 356 573  
 Faxa: 943 031 576    OIaso, 17 - Elgoibar

HYUNDAI  
 MAZDA

**MEKANOSA**  
 Errosario, 27-Elgoibar  
**943 740 284**

- ✓ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ✓ MULTIKOPISTAK
- ✓ FOTOKOPIAGAILUAK
- ✓ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ✓ MARRAZKETA MATERIALA
- ✓ INFORMATIKA
- ✓ FAXA

Jon Aranao  
 Guillermo Torres

Elgoibar  
 Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
 Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
 Asteleheneratik ostirakeraz: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
 Larunbatak: 11:00 - 13:00

Leopoldo Zerbitzua daukagu.  
 Delu ardua hartzeko.

**PINTURA ETA DEKORAZIOA**  
**CORDON VILARCHAO**  
 cordonvilarchao@telefonica.net  
 San Roke, 7 - OIaso, 18, Pab. 25-26  
**943 740 570 / 636 986 162**



■ **IRAILA:** Kirolaren eta euskararen Elgoibarko egoeraz jardun ziren *Euskara ala ez* jardunaldian. Kirolzale eta euskaltzaleak batu ziren IMHn, eta ekitaldiaren amaieran kirolean sarri itzalean lan handia egin duten sei emakume omendu zituzten, *Biba zuek* lelopean: Virginia Santamarta (Morkaiko), Marta Diez (C.D. Elgoibar), Marga Zapata (Urnobitza motokluba), Mertxe Ariznabarreta (Lagunak pilota taldea), Pili Pedrosa (Sanlo eskubaloi kluba) eta Mertxe Martinez (Mintxeta atletismo taldea).



■ **IRAILA:** Santa Ana kaleko hasierako etxebizitzarako hormairudia aukeratzeko, partehartze prozesua jarri zuten abian. Zortzi proposamen egin zituen Udalak eta Pablo Astrain artistaren *Ibai berria* lanak irabazi zuen. 980 bototatik 445 jaso zituen.

■ **IRAILA:** Sanlori eman zioten estreinako Lila Saria. Emakumeen Etxearen lehen urteurrena ospatzeko ekitaldia egin zuten, eta hura baliatu zuten Sanlori saria emateko. Urteetan emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzen egindako ahaleginaren aitortza izan zen.



■ **IRAILA:** Elgoibarren bizi izandako emakumea hil zuten Benidormen. 68 urteko M.L.L. emakumeak bi labankada eta indarkeria zantzuak zituen, eta Poliziak indarkeria matxistatzat hartu zuen. Hilketa gaitzesteko elkarretaratzea egin zuten Elgoibarren.



■ **URRIA:** Sallobente elkarteak 50 urte bete zituen. 1971n hasi ziren elkarte sortzeko ideiarekin, eta 1972ko apirilaren 6an hasi zuten ibilbidea. Urteurren hori ospatzeko ekitaldian 200 bat lagun elkartu ziren, eta elkartearen sortzaileetako zazpi omendu zituzten: Sebastian Gorrotxategi, Joxe Bollar, Isaac Osoro, Felix Juaristi, Sabin Txurruka, Kasiano Altuna eta Alberto Aldazabal.



■ **URRIA:** Maite Maiora hirugarren postuan sailkatu zen mendiko lasterketen munduko kopan. 13 lasterketaz osatuta zegoen 22ko Skyrunner World Series Kopa, eta Maiorak hirugarren lekuan bukatu zuen txapelketa.

**AHOLKULARITZA**

**BIKAIN**

**ASESORIA**

Tel.: 943 744 557  
 Faxa: 943 740 408  
 e-posta: [bikain@bikainasesoria.com](mailto:bikain@bikainasesoria.com)

*Gabon zoriontsuak!!*

- Zerga-aholkularitza
- Lan-aholkularitza
- Kontabilitate aholkularitza

Antonio Arrillaga, 4 behea  
 20780 ELGOIBAR

Revent  
 Eibarbus

**grupo JonAnder**

[www.grupojonander.com](http://www.grupojonander.com)

*Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!*

[jonander@jonander.com](mailto:jonander@jonander.com) - [eibarbus@eibarbus.com](mailto:eibarbus@eibarbus.com)

**943 201 733**



■ **URRIA:** Anbulatorioa asteko zazpi egunetan eta 24 ordu zabaltzea eskatzeko manifestazioa egin zuten 24/7 plataformak deituta. Norbanako eta herriko erakundeen atxikimenduak jaso zituzten eta herritar ugari hartu zuten parte mobilizazioetan. Beraien borroka legebiltzarrera ere eraman zuten plataformako kideek, 5.501 elgoibartarren izenean.



■ **URRIA:** Jolasa kalera atera zuten Jolasaren asteen. Atxutxiamaiakak, Ludotekak, Gaztelekuak, Musika Eskolak, Egur arte tailerrak eta Zubi Ondo xake taldeak antolatu zuten egitasmoa, eta ume zein gurasoek kaleran jolasteko aukera izan zuten. Eguraldia lagun, harrera oso ona izan zuten egitasmoak.



■ **AZAROA:** Nerea Isasi izendatu zuten Aldundiko Berdintasun zuzendari. Eibartarra da sortzez Isasi, baina egun Mendaron bizi da eta EAJko zinegotzia da Mendaroko Udalean. Ikasketaz, Magisteritzan diplomatua eta psikopedagogian lizentziatua da. 15 urtez hezkuntza publikoan lan egin du eta azkeneko zapiak Lanbide Heziketan eman ditu. Berdintasunari buruzko goi maila ezartzen lagundu zuten eta irakasle ere izan da.

## ABENDUAK 24

### OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN ETORRERA



**11:15ean, agurra dantzatuko diegu Olentzerori eta Mari Domingiri, Maalan.**

**Ondoren, kalejiran abiatuko gara Maalatik Kalegoen plazarantz.**

**Kalejiraren ondoren, Kalegoen plazan, Olentzerorekin eta Mari Domingirekin egoteko aukera izango dugu.**

**Zatozte gurekin Olentzerori eta Mari Domingiri ongietorria egitera!**








■ **AZAROA:** BARREN astekaria saritu zuten TOKIKOM sarietan. Tokikomek hamar urte bete ditu aruten, eta denbora horretan bidea elkarrekin egin duten herri komunikabide guztiek jaso zuten saria. 28 bazkidek osatzen dute Tokikom, guztira 74 hedabide kudeatzen dituztenak: 32 webgune, 28 aldizkari, 5 telebista eta 9 irrati, eta 240 langilek dihardute taldeko komunikabideetan lanean.



■ **AZAROA:** Dantzan hasi zuten Euskaraldia Elgoibarren. Kolore biziz jantzi zuten Maalako parkea, eta *Esazu hitz bat* abestiaren erritmora dantza egin zuten Biraka taldeko dantzariak. Musika Eskolako lagunek, berriz, zuzenean jarri zuten musika. Eguraldi petrala egin arren, herritar asko batu ziren Maalan.



■ **AZAROA:** *Bagaoz* gazteen eguna ospatu zuten azaroaren 19an, eta 300 gaztek baino gehiagok hartu zuten parte, *Gaztiok ere bagaoz* martxan lelopean. Gazteen emantzipazio planaren prozesu parte-hartzailearen bukaera borobildu zuten jai honekin.



■ **AZAROA:** Andres Alberdi euskaltzain oso izendatu zuen Euskararen akademiak Donostian egin zuen osoko bilkuran.



■ **AZAROA:** Iosu Rodriguezek hirugarren egin zuen Pragan jokatu zen munduko kulturismo txapelketan. 32 urteko elgoibartarra 2019an hasi zen lehiatzen.



■ **AZAROA:** Hodei Ezpeleta mendarorarrak Euskal Herriko aizkolarari txapelketa irabazi zuen, bigarren urtez jarraian. Bilboko Bizkaia pilotatekuan jokatu zuten finala sei aizkolarik, eta Ezpeletak 47 minutu eta 42 segundo behar izan zituen lanak amaitzeko.

**Leire**  
ileapaindegia  
peluqueria

**Urtarrilaren  
6 eta 7an**  
ileapaindegia itxita  
egongo da,  
barkatu eragozpenak.

**943 256 105**  
Pedro Migel Urruzuno kalea, 10

**Gabon zoriontsuak !**



■ **AZAROA:** Astigarraga Trail taldea sortu zuten kirola eta mendia maite dituzten hainbat herritarrek. Taldera batzeko aukera dute herritarrek, eta argi laga dute taldeko kide izateko ez dela derrigorrezkoa mendian lehiatzea.



■ **AZAROA:** Mari Ecenarro hil zen azaroaren 28an, Elgoibarko EAJ-ko lehenengo zinegotzi emakumezkoa izandakoa. 1979ko udal korporazioan sartu zen zinegotzi, Luis Arrieta alkate zela.



■ **AZAROA:** Eoliken kontrako eolikoa irudikatu zuten herriko kaleetan, Karakate Bizirik plataformak deituta. 300 bat lagun bildu ziren guztira. Bukaerako argazkia da goikoa.



■ **ABENDUA:** Idoia Gurrutxaga Donostiako ESiko zuzendari medikoa kargugabetu zuen Osakidetza, Itziar Perez ESI bereko zuzendari kudeatzailearekin batera, eta haserrea eragin zuen. Kargugabetze haiek zenbait dimisio ere ekarri zituzten ondorengo egunetan, bai eta protestak ere. Donostiako ESiko zerbitzuburu eta langileek salatu zuten zerbitzuen eskatea jasaten ari zirela erabiltzaileak zuzendaritzatik ez zirelako ospitaleko profesionali eta adituei entzuten.



■ **ABENDUA:** Aste gastronomikoa antolatu zuten Aizu! Ostalarien elkarteko hainbat tabernarik. Herriko ostalaritza sustatzea zuen helburu egitasmoak, eta antolatzaileak pozik agertu ziren izan zuten harrerarekin.




■ **ABENDUA:** Mari Jose Tellería Mendaroko PSE-EE alderdiko zinegotzia izendatu zute Foru Aldundiko Kultura Saileko diputatu, Harkaitz Millanek dimisioa aurkeztu ostean.



■ **ABENDUA:** Nerabe zela -1960ko hamarkada bukaeran- Don Andoni izeneko apaiz batek egin zizkion sexu abusuen berri eman zuen *BERRIAN* Isabel Barrutia elgoibartarrak. Barrutiak aitortu zuen 40 urte izan zituen arte ezin izan zuela barruan zeramana hitzekin adierazi. Andereño Anitaren eskolan ikasten zuen Barrutiak eta latina ematen zien apaizak. Behin, lezioa behar bezala erantzun ez zuelako, zigortu eta igande batez bere etxera joateko agindu zion, eta han egin zizkion sexu erasoak. Biktimak baliabideak eskatu zituen, berriro halakorik ez gertatzeko inori. Elgoibarko parrokoak "gaitzespen sendoena" agertu zuen testigantzaren berri izan ostean, "jokabide zuzena" eskatu zion Elizari. Udalak adierazpen instituzionala atera zuen.

■ **ABENDUA:** Ion Imanol Rementeria, Elgoibarrek eman duen saskibaloijokalaria onena, hil zen Madrilen, 58 urte zituela. Munduko saskibaloijokari onenen artean dagoen ACB ligan jokatuak elgoibartar bakarra izan zen Rementeria. Estudiantes Caja Postal taldean egin zuen debuta, 1983-84 denboraldian, 19 urterekin. 89ra arte jokatu zuen Estudiantesen, baina beste lau urtez jarraitu zuen goi mailako saskibaloian.



Etorkizuna eraikitzen  
jarraitu dezagun elkarrekin



Zorionak eta  
Urte Berri On!

 **Meka**  
Lanbide Eskola



**PSE-EE**  
**PSOE**



PSE-EE GIPUZKOA

**Feliz**  
**2021!**  
URTE BERRI ON!

Etorkizun berri bat eraiki dezagun,  
ezkertiarra, soziala eta berdea.

**José Ignacio Asensio**  
GIPUZKOAKO PSE-EEko IDAZKARI NAGUSIA



Finaleko bederatzi epaileak, epaile ordezkioak eta idazkaria. Seigarrena da Eneritz Azkue.

## “Finalak utzi duen irudia eredugarria da”

### ENERITZ AZKUE

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako epaileetako bat

✍️ Ainara Argoitia

Duela lau urteko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean ere egin zituen epaile lanak, eta finaleko bederatzi epaileen artean izan da aurten ere Eneritz Azkue (Mutriku, 1982). Ikastolako garaietan zaletu zen bertso munduaz eta Mutrikuko bertso eskolan ibili zen urteetan. 2005ean, baina, epailetzara bideratu zen.

#### Martitzena. Zer gorputzaldirekin zaude?

Nekatuta eta burukominez egon nintzen atzo, bezperakoaz deskonektatu ezinda, baina lagun bati esan nion bezala, ederra da aje tipo hori. Sentitzen naiz pilak kargatuta, inspiratuta oso. Iruditzen zait finalak indarra ematen duela jarraitzeko euskal mundu honen alde lanean.

**Puntuazioa eman zenuten, baina zer balorazio egiten duzu finalaz? Eta, txapelketaz oro har?**

Oso ondo joan da dena. Jende berria izan dugu, sorpresak ere bai... Irailean hasi zen txapelketa, eta egia da saio batzuek emozio gehiago sortu dutela beste batzuek baino, baina esango nuke maila oso handikoa izan dela txapelketa, eta aldi berean parekatua. Bertsolari guztiek laga dizkigute ale politikak eta hori beti da eskertzekoa. Aldaketa islatu duen txapelketa ere izan da.

#### Finalean ikusi zintugun epaimahaian, baina aurrez ere izan zara beste saio batzuetan, ezta?

Bai, lehen fasean ere jardun nintzen epaile lanetan, lau saiotan. Finalean jardun behar diren epaileak beti aritzen dira aurrez faseren batean.

#### Ezberdina al da final bateko lana epaitzea?

Beharbada ez da politikoki zuzena izango hau esatea, baina niretzat sailkapen faseko saioetan epaile izatea zailagoa da. Sailkapen fasean kantuan ari den bertsolariak finalean egotea dauka jokoan eta hori ardura handia da guretzat. Behin finalera iritsita, denek jantzi nahiko dute txapela, eta hiru-lau batek hortxe izango dute gainera, eskura, baina esango nuke finalerako sailkatzea dela gehientzat sari handiena. Gure egitekoa

berdina da, baina egia da sailkapen faseko lau saioetan seiko puntuazioa berdina izan behar dela. Finala egun batean jokutzen da eta ez dago aurreko asteetako oreka hori mantendu beharrik.

**Amets Arzallus: "Ni, bertsolari bezala baino gehiago, euskaldun bezala honen parte sentitzen naiz. Bizitzan, zoritxarrez, ez dauzkagu hainbeste egun gisa honetako festa kolektibo handietarako, eta pozik nago neure aletxoak jarri dudalako euskaraz bizi nahi duen herri horren festan erregai bezala". Zer da txapelketa zuretzat?**

Bat nator Ametsek dioenarekin. Euskaldun moduan, lau urtean behingo festa handia da txapelketa nagusia, eta bai ni eta bai nire etxeokoa ere zain-zain egoten gara. Hunkitzeko egunak izaten dira, eta komunitate bateko parte sentitzeko aukera ematen digu txapelketak; indarberritu egiten gaitu euskaltzaleak. Eta pertsonalki, kantuan egiteari laga nionetik, bertsolaritza mundu honetan jarraitzeko eta hor gertatzen ari dena gertutik sentitzeko aukera eman dit epaile izateak, bai eta oholtzara igotzen diren bertsolarien lanari balio handiagoa emateko aukera ere.

**Orain hurrengo aitortu zenigun, garai batean, bertsoetan aritzen zinenean, egingo zenukeen azkena epaile izatea zela pentsatzen zenuela. Amaitu berri da finala. Errepikatuko al duzu?**

Umeei eta ilobei agindu diet lau urte barru ez naizela epaile lanetan ariko finalean eta beraien ondoan gozatuko dudala bertsolarien emanaz. Saiatuko naiz mundu honetatik ez urruntzen, baina, bai, gustatuko litzaidake finala publikotik jarraitzea. Epaileok ere gozatzen dugu bertsoez lanean ari garela, emozioak transmititzea badagokiolako bertsolariari, baina egia da boligrafoa eta kuadernoak aurrean dituzunean, beste ardura bat sentitzen dela.

**Eta nola kudeatzen ditu emozio horiek epaileak 13.000 bertsozale oilo-ipurditan jarri dituen bertsolariaren lana epaitzen ari denean?**

Emozioak iristen zaizkigu guri ere, azken batean bertsolaritza komunikazio-ekintza bat delako eta bertsolariak asmatu behar duelako esan nahi duen hori doinuan eta neurrian sartzeaz gainera, emozioak sortzen, baina egia

*"Bertsotan, epaitzea ez da gauza natural bat, baina txapelketa bat egotea nahi baldin badugu, epaileak egon behar dira eta horretarako ditugu irizpideak adostuta eta onartuta"*

da publikoaren txaloetatik eta zurrumbilo hortatik aldendu beharra dugula. Horregatik jartzen gaituzte aparterago, horregatik jantzen ditugu kaskoak eta horregatik egin behar dugu lanketa handi bat aurrez.

**Pentsatzekoa da beti egongo direla gauza batzuk neurgarriagoak eta beste batzuk neurgaitzagoak. Irizpide horiek berdin ulertzeko zer lanketa egin behar izaten duzue epaileok?**

2017an epaile eskola iraunkor bat sortzea erabaki zuen Bertsozale Elkarteak. Ordura arte, txapelketak baino zortzi bat aste aurretik hasten ginen lanean. Baina 2017an erabaki zuten behar genuela jarraikotasun bat, talde-kohesio hori lantzeko, txapelketarako prestatzen ari garela dugun tentsio puntu horri eusteko, bakoitzak etxean bakarka trebatzen jarraitu ahal izateko, ezberdin epaitu diren bertsoaldien inguruan lanketa komun bat egiteko eta gai jakin batzuen inguruan gogoeta saio bereziak egiteko. Lantzen dugu, esaterako, umorea nola puntuatu, generoaren ikuspegitik marra gorriak nola landu... eta horrek guztiak aberasten du gure jarduna.

**Eta pentsatzekoa da epaimahaia osatzeko orduan beste oreka hori ere zaintzen dela: ez izatea denak lurralde batekoak, adin berekoak...**

Bai. Epaileen lantaldean gauden 40 epaileetatik 30ek eman genuen izena txapelketarako, 30ok ibili gara prestatzen, baina azkenean 21 aukeratu ibili gara epaile lanetan. 40ko taldean lurralde, adin eta sexu ezberdinetakoak gaude, eta ezinbestekoa den oreka hori ahalik eta fidelen zaintzeko Bertsozale Elkarteak aukeratu ditu txapelketan jardun garen 21ak, izena emandako 30en artetik. Epaitezak ez du esan nahi denok berdin epaitu behar dugunik, baina oreka egon behar da derrigor, eta hori oso zorrotz zaintzen da.

**Momentuan epaitzea dagokizue zuei, baina beti izaten dira zalantzak-eta. Ganbarako saioan Amets Arzallusek "parte" hitzarekin poto egin ote zuen duda ere zabaldu zen, esaterako, finalean. Halakotan galdetzeko aukerarik izaten duzue?**

Bat-batean epaitzea dagokigu guri, eta hurrengo bertsoaldia hasterako eman behar dugu puntuazioa kuadernoan. Zenbaki hori doa gero idazkariarengana eta hor ez dago atzerako bueltarik. Aurten esan izan dugu, futboleko moduan, VAR sistema jarri beharko dugula, baina ez, bertsoaldiak ez dauka etenik eta hori da entzuleek eta bertsolariak ulertu behar dutena: gu ere bat-batean ari garela. Galdetzeko momenturik egoten al den? Epaila ordezkoak izaten dira eta gerta daiteke galdetu beharra, gaiari buruz zerbait ulertu ez badugu-edo, baina horixe. Guk ere jakin behar dugu, bertso bat epaitzerakoan guztiz gustura gelditu ez bagara ere, eten bat egin behar dugula eta hurrengo bertsoaldira jarri, bestela kaltetua irteten dena hurrengo bertsoa delako.

**Txapelketa aurreko egunetan finalistek kontatu ziguten nola prestatzen ziren finalerako. Eta, zu?**

Saio bakoitzaren aurretik argibideak bidaltzen dizkigute antolakuntzatik eta deskonektatzeko eta deskantsatzeko eskatzen digute. Denok ibiltzen gara geure lanen eta arduren motxilarekin aste guztian zehar eta hori etxean lagata joan behar gara saiora. Nik, bezperan, familia bazkari bat izan nuen eta deskonektatu nuen. Gauean, errepaso arin bat eman nien epaitzeko irizpideei, lanerako behar den tentsio puntua hartzeko, eta kitto! Hori bai, beti gustatzen zait norbaitekin joatea saiora.

**Zein izan zen finaleko bertsoaldi puntuatuena?**

Maialenen bakarkakoa, 8ko batez bestekoarekin.

**Ia gehienenek argi zuten Maialen Lujanbio izango zela buruz burukorako sailkatuko zen bertsolarietako bat. Bestearen gainean zalantza handiagoak zeuden itxura batean.**

Gure sentsazioa zen oso orekatua zihoala saioa eta ez zegoela bat besteen oso gainetik eta ezta oso azpitik ere. Hainbesteko puntu-saltsan, askotan, ez dut jakitzen neure batuketak zer emango duen ere. Uste dut epaile guztioi gertatzen zaigula hori.

**Bertsolari "handien" itzalak eta kantu leketan**

**sortzen den giroak eragin dezake publikoaren balorazioan. Epaila izango dituzue erremintak hori saihesteko, baina izango da hala ere zalantza egiten duenik. Zer diozue?**

Ez pentsa bertsoaldi batetik bestera tarte handirik gelditzen zaigunik txalo zaparradez-eta ohartzeko! Hori dena ahal den zorrotzen zaintzeko erremintak badaude eta erabiltzen ditugu.

**Bertsolaria zigortu beharrean bertso ona saritzen duzuela esan izan duzu. Bertsolarien emanetik zer bertsoaldi nabarmenduko zenuke finaletik?**

Bai, eta sekulako lana egiten dugu horretarako. Esango nuke buruz burukoan entzun genituela bertso onenak, ziurrenik eurek ere libreago jardun zirelako. Denok sentitu genuen hori.

**Irungo finalaurrekoaren ondotik izan zen halako zalaparta bat puntuazioen harira. Nola uste duzu epaitzen duela publikoak zuen lana?**

Aitortuko dizut aste hura ez zela batere erraza izan guretzat. Saiatzen gara aldentzen eta lau aste horietan sare sozialik-eta ez begiratzen, baina ez zen erraza izan, ez zelako beste konturik. Dena den, uste dut orokorrean, errespetatzen gaituztela, oso kontziente direlako gure lana zaila dela. Uste dut aurten talde edo kolektibo batek bazuela ilusio berezi bat finala ezberdina izateko emakumeen kopuruari dagokionez, eta Irungoaren ostean batzuei zalantza sortu zitzaizela beteko ote zen. Hala ere, iritsi dira hiru emakume finalera, eta merezimendu osoz gainera.

**Zer da epaitzearen zailena?**

Bertsolaritza artea da eta artea zenbaki batera ekartzea da zaila. Bertsotan, epaitzea ez da gauza natural bat, baina txapelketa bat egotea nahi badugu, epaileak egon behar dira, eta horretarako ditugu irizpide batzuk adostuak eta onartuak.

**Eta merezimenduz jantzi du hirugarrengoz txapela Maialen Lujanbiok, baina ikusi ditugu irudi eder gehiago ere: Amets eta biak besarkada estuan bilduta; zortzi finalistak lepotik helduta...**

Futboleko mundialak ez bezala, gure mundial honek utzi duen irudia eredugarria izan da. Bukaerako argazki horretan ikusten da duten gizatasuna, duten kideasuna... besarkada horiek benetakoak ziren. Bertsolari hauek mitoak dira eta balio on asko transmititzen dituzte.



## Goizez iritsiko dira bihar Olentzero eta Mari Domingi Elgoibarrera, eta arratsaldez, Mendarora

**B**idean dira Olentzero eta Mari Domingi. Bihar iritsiko dira Elgoibarrera, 11:00ak alderako, eta kalez kale ibiliko dira, 11:30ean Maalan hasita. Kalegoen plazara arteko bidea egingo dute jendez inguratuta, baina abiatu aurretik, agurra dantzatuko diete herriko dantzari gazteek, Maalan. Kalegoen plazan atonduko diete estalpea Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika taldekoek eta hantxe egongo dira umeen zain. Haurren gutunak jaso eta haien eskari guztiak entzungo dituzte.

Elgoibarko haurren gutunak jaso ostean, Mendarorako bidea hartuko dute Olentzero eta Mari Domingik. Arratsaldez iritsiko dira hara. Ameikutz musika eskolakoek antolatu ohi dute ongietorria eta Moxuaneko pare horretan itzaroteko eskatu diete herriko familiei. Baserritar jantzita eta kantarako gogoz joateko eskatu dute antolatzaileek. Whatsappez zabaldu dituzte kantatuko dituzten kantuak eta



abestera animatzeko eskatu diete herritarrei, Olentzerok eta Mari Domingik harrera beroa merezi dutelakoan. Garagartzatik udaletxera arteko kalejira egingo dute eta handik agurtuko dituzte herriko familiak. Eguraldi txarra egingo balu, Trinitate baselizan egingo liekete harrera, dantzan eta kantuan.

---

### Enara Mujikak irabazi du Atxutxiamaiak antolatutako irudi-kontakizun lehiaketa



Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika aisialdi taldeak irudi-kontakizun lehiaketa antolatu du aurten, eta jakinarazi dute Enara Mujikaren *Itzalezko silueta* lana izan dela sariduna. Mujikak 100 euro jasoko ditu Elgoibarko dendetan gastatzeko.

### Kalejira berezia egingo du bihar Udal Musika Bandak

Elgoibarko Udal Musika Bandak kalejira berezia egingo du bihar, Gorka Mujikaren zuzendaritzapean. 13:00etan hasiko dute kalejira, eta herriko kaleak zeharkatu ostean, Gabon kantak abestuko dituzte Kalegoen plazan.

---

### Gabonetako postal lehiaketako lanak ikusgai izango dira gaur Mendaron

Gabonetako postal lehiaketa antolatu du aurten ere Arno Guraso Elkarteak Mendaron. Abenduaren 20rako entregatu behar zituzten lanak eskolako umeek eta gaur jarriko dituzte denak ikusgai udaletxeko atarian. Erakusketa ikusi eta bere obra etxerako hartu ahal izango du ume bakoitzak. Era berean, sari txiki bana ere jasoko dute umeek.

## Bi milatik gora opari ditu Elgoibarko Izarrak bihar Kalegoen plazan jarriko duen tonbolan banatzeko

**E**lgoibarko Izarrak bi milatik gora opari banatuko ditu bihar Kalegoen plazan jarriko duten tonbolan. Elgoibarko eta Mendaroko norbanako, saltoki eta enpresek emandakoak dira gehienak, baina badira bi herriotatik kanpoko eragileek emandakoak ere, eta lerro hauen bidez, eskuzabaltasun hori eskertu nahi diegu guztiei Elgoibarko Izarra osatzen dugunok. 11:00etan ekingo diogu bihar boletok saltzeari eta 14:00ak alderako amaitzea aurreikusten dugu. Ordu horretan, telebista bat zozkatuko dugu, saritu gabeko boletok dituzten guztien artean, baina saria eskuratzeko plazan egon beharko du saridunak.



### Errege magoen desfileak arratsaldez egingo dira, urtarrilaren 5an

Urtarrilaren 5an egingo dira Mendaron eta Elgoibarren errege desfileak, ohi legez. Elgoibarren, Santa Klaratik iritsiko dira hiru erregeak zaldiz, eta Kalegoen plazan egingo diete ongietorria elgoibartarrek. Jaiotza biziduna egongo da parrokiako arkupeetan eta urrea, mirra eta intsentsua eskainiko dizkiote erregeek Jesus jaioberriari. Ondoren, kalez kale ibiliko dira, eta San Lazaro egoitzara iritsita geldialdia egingo dute hango egoiliarak bisitatzeko. Handik, Kalegoen plazarako bidea hartuko dute berriro, eta behin hara iritsita, haurren gutunak jasoko dituzte.

#### Izen-ematea, astelehenean

Errege magoen desfilean parte hartzeko datorren astelehenean, abenduak 26, eman behar da izena. 17:00etatik 19:00etara egongo dira arduradunak Aita Agirre kulturguneko beheko solairuan. 9 urtetik aurrerako umeek hartu dezakete parte.



#### Mendaro

Mendarora ere 18:00etan iritsiko dira hiru erregeak, zaldiz, Lizarpetik behera, eta Garagartzan, Moxuaneko aurre horretan batzeko eskatu diete herritarrei erregeei ongietorria egiteko. Kalez kale ibiliko dira gero hiru erregeak, zaldi gainean, eta frontoian jasoko dituzte haurren gutunak. Egun horretan, erregeei kantuan egiteko izena eman duten haurrek urtarrilaren 3an eta 4an izango dituzte entseguak, San Agustin kulturgunean, 15:00etan.

### Gabonetako parkeak antolatu dituzte Elgoibarren eta Mendaron

Gabonetan, puzgarriak jarriko dituzte Elgoibarren eta Mendaron. Elgoibarren, abenduaren 26, 27 eta 28an zabalduko dute Gabonetako parkea, Elgoibar ikastolako jolastokian. Goizez, 10:00etatik 13:00ak

arteko ordutegia izango du, eta arratsaldez, 16:00etatik 17:00ak artekoa. Mendaron, abenduaren 29 eta 30ean zabalduko dute, goizez, 11:00etatik 14:00etara, eta arratsaldez 16:30etik 19:30era.

## Banatu dituzte jaiotza lehiaketako sariak



166 umek 38 jaiotza aurkeztu dituzte lehiaketara aurtan, azken urteetako kopuru handiena. Lehen saria bost lagunez osatutako honako taldeak jaso du: Denis Sesma, Maylen Sesma, Oier Otaño, Irane Trinidad eta Elur Mugertza. Bigarren saria Paula eta Scarlet Avendaño jaso dute, Elene eta Afrika Lasuen ahizpek hirugarrena eta Sune Ortiz, Nahikari Alzibar, Muskan Muskan, Miren Aizpitarte, Izar Estevez eta Sare Rubiok aurkeztutako jaiotzak jaso du laugarren saria. Edonola ere, parte-hartzaile guztiek jaso zuten oparizatutako domina bana.

Urtero moduan, itxura eta material desberdinez eginiko lanak aurkeztu dituzte lehiaketara eta guztiak ikusgai daude Aita Agirre kulturguneko erakusketa gelan. Antolatzaileek eskerrak eman dizkiete Udalari, Elgojaitza elkarteari eta Aramburu bitxi dendari eman dieten laguntzagatik.

### Urtarrilaren 31ra arte dago orri markagailuen lehiaketan parte hartzeko epea

Elgoibarko Udal Liburutegiak orri markagailuen lehiaketa antolatu du, *Itsasoa zainduz, etorkizuna babestu* lemapean. Elgoibarren erroldatuta dauden umeez edo Elgoibarren ikasten dutenek hartu dezakete parte. Bi maila bereiztu dituzte: LH5era artekoak eta hortik gorakoak. Orri markagailuak 210 milimetroko luzera eta 50 milimetroko zabalera izan beharko ditu. Liburutegian bertan edo [liburutegia@elgoibar.eus](mailto:liburutegia@elgoibar.eus) helbidean entregatu behar dira lanak, izena eta bi abizen eta maila zehaztuta.

## Danobatgruppen 'Euskaraz izango gara' lehiaketa Arantza Aguadok irabazi du



Euskararen Nazioarteko Eguna eta Euskaraldiaren amaiera ospatzeko lehiaketa antolatu du Danobatgroup kooperatiba taldeak *Euskaraz izango gara* lemapean. Taldeak enpresak dituen herri guztietan egin dute lehiaketa, eta Arantza Aguado izan da irabazlea. Produktu ekologikoz betetako otarra jasoko du sarizat. Kooperatiba taldetik azaldu dutenez, duela 22 urtetik hona ari dira euren egunerokoak euskaraz izateko lanean, eta gaur egun 2021-2024 plan estrategikoa markoan ari dira euskara planeko erronkak eta helburuak lantzen.

### Urtarrilaren 15era arte egongo da jaiotza mekanikoa ikusteko aukera



Eguaztenean zabaldu zuten Elgojaitza taldeko kideek aurtengo jaiotza mekanikoa. Biktoriano Etxabe parrokoak jarri zuen martxan, eta ohi bezala, egunez eta gauez bizi dira jaiotzako figurak. Aurtengo berrikuntzen artean gaztaina erretzailea eta palazioa sartu dituzte. Urtarrilaren 8ra arte egongo da jaiotza bisitatzeko aukera. Astegunetan 17:00etatik 20:00etara, eta jai bezperetan eta jai egunetan, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Gabon Zahar Feria egunean, berriz, egun osoan egongo da zabalik, 9:00etatik 20:00etara.



## JON BASURTO

C.D. Elgoibarreko presidentea

✍ Asier Orbea / 📷 C.D. Elgoibar

C.D. Elgoibarreko zuzendaritzak azken zazpi urteetan gidatu du kirol taldea, eta errelebo eske dira, klubak ideia berriak eta freskotasuna behar dituela uste baitute. Urtea amaitzarekin batera lagako dituzte euren zereginak, eta erreleborik agertu ezean, klubaren funtzionamendua ez dela orain artekoa izango esan dute. Kluba egoera oso onean lagatzen dutela dio Jon Basurto presidenteak eta azken zazpi urteotako balantzea egin du, ondorengoei bidea erakusteko.

*“Erreleborik agertu ezean, klubaren funtzionamendua ez da orain artekoa izango”*

### **Urte amaierara arte jarraituko zutenela jakinarazi zutenen. Zertan da erreleboaren kontua?**

Oraingoz ez da taldearen ardura hartzeko prest dagoen talderik aurkeztu. Zazpi urte egin ditugu zuzendaritzan, eta bi urte daramatzagu laga behar dugula esanez. Ekaineko Batzar Orokorrean aurreratu genuen moduan, urtarrilean lagako ditugu gure ardurak. Erreleborik agertu ezean, klubaren funtzionamendua ez da orain artekoa izango, urtarriletik ekainera bitartean. Nolabait esatearren gutxieneko zerbitzuak emango dira, behar-beharrezkoak diren zereginak bakarrik, baina urtarriletik aurrera ez da zuzendaritzarik egongo. Taldearen ardura hartzera animatu nahi ditugu klubaren bueltakoak. Lan egin behar da, baina oso ondo dago kluba.

### **Kontaguzu, zu zeu nola iritsi zinen zuzendaritzara.**

Ikusten genituen gauzak hobetzeko zeudela, eta kexatu beharrean aurrea hartzea erabaki

genuen. Semearen entrenamenduak ikustera joaten nintzen, eta denek euskaraz jakin arren, euskalduna zen entrenatzaileak gaztelaraz egiten zien. Orduko zuzendaritzakoengana jo nuen, bilera bat eskatzeko. Ondo hartu ninduen klubeko kide batek, baina Elgoibar 'herri erdalduna' zela izan zen jaso nuen erantzuna. Ez ninduen asetu. Orduan esan nion nire lagun Anton Iranzori klubaren ardura hartu behar genuela. Gauzak hobetu nahi bagenituen pauso bat aurrera eman behar genuela pentsatu genuen, eta saiatu egin ginen. Zazpi urte eman ditugu lanean, eta hobetzeko asko dagoen arren, hori da bidea.

### **Erreleboa hartu nahi dutenentzat diozue kluba egoera ezin hobean dagoela.**

Bai, C.D. Elgoibar oso ondo dago, bai sozialki eta bai ekonomikoki ere. Haizea alde izango dute datozenek. Ez dute hutsetik lanean hasi beharko, eta abantaila handia da hori. Azken zazpi urteetan

*"Ez dago joko zelai  
eta aldagela nahikorik  
ditugun 540 futbol jokalarientzako"*

lan izugarria egin baitugu. Joera ekonomiko negatiboarekin hartu genuen kluba, eta orain ongi gaude arlo honetan. Epe luzera klubaren jasagarritasun ekonomikoaren oinarriak ezarri nahi genituen, eta helburua lortu dugu. 25.000 euroko soberakinarekin hartu genuen kluba, eta 100.000 euroko poltsa dugu orain. Gipuzkoako oso talde gutxi izango dituzte halako finantza onak. Eta, poltsan dirua edukitzeak ez du esan nahi inbertsiorik egin ez dugunik. Alderantziz; kluba modernizatzeko inbertsioak egin ditugu. Material guztia berria da Mintxetan: indarra lantzeko aparatuekin osatu dugu gimnasioa, dirutza balio duten porteria txikiak eskuratu ditugu eta berritu ditugu bulegoak. Txandal guztiak ere berriak dira, hamabost urtean berritu gabe egon eta gero. Aurten txamarrak ere berrituko ditugu, 15.000-20.000 euroko inbertsioa eginda. Publizitatean ere berri onak izan ditugu azkenaldian, eta hiru talderi hiru urterako babes emateko babesleak lortu ditugu.

**Egiguzu zuzendaritzak eginiko lanaren balantzea.**

Hasiera guztiak dira zailak, eta guk ere arazo dezente eduki genituen, eskarmentu gutxi genuelako edo kluba behar beste ezagutzen ez genuelako beharbada. Ez genuen uste Haundik talde barruan duen pisua halakoa zenik. Zuzendaritzan sartu eta egin genuen lehenbiziko Batzar Orokorrean jabetu ginen Haundik han bildutako bazkideentzat zuen garrantziaz. Gainera, maila galdu zuen denboraldi hartan, taldearen mendeurrena ospatzen ari ginen urtean hain justu ere. Bazkideei ia 20.000 euroko balantze positiboa aurkeztu genien arren, ez zen nahikoa izan animoak baretzeko. Gure helburuetako bat Haundi elgoibartarrez betetzea izango zela esan genuen hasi ginenean. Gu iritsi ginen urtean bost elgoibartar zeuden gizonezkoen lehen taldean eta hamasei elgoibartar sartu genituen taldean... eta mailaz jaitsi ginen! Hori ere ez zuten aintzat hartu. Haundi inoiz egon den mailarik baxuenera jaitsi ostean, egurra eman ziguten. Izugarriak entzun behar izan genituen, kluba desagertuko zela edo desagertu araziko genuela esan ziguten aurpegira zenbait bazkidek. Harrituta eta beldurtuta jaso genituen kritikak. Errealitate kolpe gogorarekin hasi genuen gure ibilbidea.

**Hasiera gogor horrek izan zuen eraginik zuengan?**

Zortea alde izan genuen eta Haundik maila

berreskuratu zuen, laugarren sailkatu arren igotzea lortu baikenuen, karanbola bati esker. Kirol emaitza on horrek barealdia ekarri zuen, eta diru kontuetan ere emaitza onak aurkeztu genituen bigarrengoz. Harrezgero, poliki-poliki, baina lan asko eginda, aurrera egin dugu. Egunerokoan ikusten ez den arren, ezinbestekoa da talde lan ona egitea, eta horregatik, eskerrak eman nahi dizkiet beti nire ondoan izan ditudan zuzendaritzako kide guztiei, kartelak ipintzen edo errifak saltzen aritu direnetatik hasi eta diru kontuak eraman dituztenengana arte, denek balio berdina baitute.

**Zein izan dira zuen helburuak?**

Ekonomikoki bideragarria izatea, nesken futbola sustatzea, kluba euskalduntzea eta futboleantzeko aukerak ume guztiengana zabaltzea; hau da, arazo ekonomikoak ez daitezela izan oztopo gure taldeetan futboleantzeko. Horretarako deskontuak egin ditugu bazkideentzat, RGIA dutenei laguntzak eman dizkiegu edota familia ugarietarako hobariak ezarri ditugu. Umiltasun osoz diot helburu guzti horiek gauzatzeko gure alea jarri dugula, kluba aurkitu genuena baino hobeto lagatzeko ondorengoei. Haundi da klubaren erakusleihoa, berak du ikusgarritasun handiena, izeberg baten puntak duen moduan. Lehen taldeari bultzada ematea izan da gure lana, taldearen bueltako denak ahalik eta baldintzarik hoberenetan egon daitezen, eta uste dut taldea goranzko bidean dagoela. Gainerako taldeetan formakuntzan eragitea izan da gure ardura eta zeregin nagusia, eta zenbait talderekin urte on batzuk izan ditugu. Eta ez naiz kirol emaitzez ari, taldean egon den giroaz eta jokalariek jaso duten kalitatezko prestakuntzan jarri nahi dut arreta. Hor ikusten dugu egiteko nagusia, eta aldi berean gabezia handiena. Talde guztietara zabaldu nahi genuke kalitatezko formakuntza hori, erraza ez den arren.

**Entrenatzaileak baino gehiago hezitzaileak behar dituzue.**

Hala deitzea gustatzen zait. Heziketan inbertitzea izan da gure apustua hasieratik, entrenatzaileei

ikastaroak ordainduta, adibidez. Hamabost bat ikastaro ordaindu dizkiegu gure entrenatzaileei, 500 eta 1.000 arteko kostua dutenak. Entrenatzaileek titulua edukitzera derrigortzen gaitu federazioak eta maila baxuenekoa, C maila, online atera daiteke ia erabat. Gero hiruzpalau aldiz joan behar da Donostiara praktikak egitera. Federazioak laguntzak eman ditu emakumeek entrenatzaile titulua atera dezaten, eta laupabost ikastaro ordaindu ditugu. Titulua edukitzeak, baina, ez zaitu entrenatzaile on egiten. Guretzako zailena hezitzaile onak lortzea da. Futbol Eskola eramateko hezitzaile talde oso on bat osatu dugu, baina hortik gorako taldeetan gehiago kostatzen ari zaigu. Izan ere, alebinetatik aurrera entrenatzaile askok lehiatu nahi dute. Irabazi. Hala, prestatuenek talde koskortuagoak gidatu nahi dituztenez, jende gaztea hartu beste aukerarik ez dugu. Eta arazoak ditugu, ez daudelako prestatuta umeak hezteko. Eskarmentu gehiago duen jendea egokiagoa dela begitantzen zaigu. Futbolaz asko jakin beharrik ere ez dago; ume talde bat eramaten jakin behar da. Erronka handiena hor dugu. Kategoria txikietan formatzaile onak izatea. Egon egongo dira, baina guk ez ditugu topatzen guretzako modukoak. Edo, bestela, dauden horiek gehiegi eskatzen dute gure ahalerako.

**BARRENen landu genuen lehenago emakumeen futbola bizitzen ari den goraldia. Zenituzten usterik onenak gainditu dituzue, ezta?**

Bai. Emakumeen futbola hauspotzeko gure helburuan aurrerapen handiak egin ditugu, eta garrantzi handia ematen diogu. Zorte handia izan genuen herriko emakume talde bat senior mailako taldea sortzeko prest agertu zitzaigunean. Berebiziko garrantzia dauka hasten ari diren neska gazteek erreferenteak izateak. Hor daukagu Sara Arriola adibidez, emakumeen taldeko kapitaina. Oso ezaguna da neska gazteen artean eta futbol eskolako entrenatzailea ere bada. Horrelako erreferenteak bertatik bertara izateak asko bizkortzen du neskak futbolera erakartzeko prozesua. Gu sartu ginenean hasi ziren zortzi bat neska gaztek taldean jarraitzen dute, kadeteetan daude orain. Poz handia ematen digu izan duten aurrerapen itzela ikusteak. Senior taldekoek ere aurrerapen itzela izan dute lau urteotan. Joera bat ere aldatu da azken urteotan, lehen Mendarotik Debara joaten baitziren futbolearen hasten ziren neska-mutilak eta guregana datoz orain. 140 neska ari dira futbolearen gurekin, eta maila guztietan

ditugu taldeak. Pentsaezina zen hasi ginenean. Gipuzkoako Futbol Federazioko presidentek berak ere halaxe esan zidan, azken urteetan gehien hasi garen kirol taldea garelara. Bederatzi talderekin hasi ginen eta hamazazpi ditugu orain, Futbol Eskola kontuan izan gabe. Hamabost talde ditugu Futbol Eskolan. Zoramena da.

**Harrobia bete-betea duzue.**

Bai. Futbol Eskolan 60 ume zebiltzan duela 7 urte eta orain 175 neska-mutil ditugu. Arrakastak antolakuntzarako zailtasunak ekarri dizkiegu, baina, futbol zelai bakarra dugulako. Eskolako arduradun Mikel Elkoroiribe antolakuntzan egiten ari den lana nabarmendu nahi dut, eta ez naiz bakarra, Realak ere goraipatu duelako gaztetxoekin egiten dugun lana. Alor horretan aurrean gaudela aitortu digu. Gure antolakuntza eta lan egiteko modua txalotu dituzte. Erosita daukagu Kimet izeneko erreminta profesional bat, Realak edo Athleticek erabili izan dutena. Online dago, eta adin bakoitzerako eta denboraldi bakoitzerako mila ariketa ezberdin eskaintzen ditu. Egokienak izan daitezkeenak aukeratzen dituzte gure prestatzaileek. Erreminta ona eta praktikoa dela uste dugu. Futbol Eskolakoen entrenamenduetarako sei zatitan banatzen dugu Mintxetako futbol zelaia, eta ariketa bat edo beste egiten dute umeek, euren mailara egokituta. Oso ondo funtzionatzen du. Baina... arazo bat dugu, instalazioa txiki gelditu zaigula.

**Badago futbol zelai berri bat eraikitzeko aukerarik?**

Ez dago joko zelai eta aldagela nahikorik ditugun talde guztientzat. Aldagela berriak egiteko proiektua onartuta dago, pandemiak behin-behinean bertan behera laga bazuen ere. Asmoa bi aldagela berri egitea da, padel pistak dauden azpiko aldean. Azken zazpi urteotan izugarri hazi gara eta orain dela bi urtetik hona zenbait talderen entrenamendu kopuruak eta iraupena gutxitu behar izan ditugu. Zein den irtenbidea espazio faltarentzat? Futbol zelai berri bat eraikitzearen beharraz berba egiteko bilerak izan ditugu Udalarekin. Behar bat dela jakinarazi diegu, ez dela kapritxo bat. 320 jokalarirekin hasi ginen eta 530 ditugu orain. Hazkunde izugarria da. Terrenoak eta dauden aukerak begiratzea da Udalarik eskatu dioguna, momentuz, proiektu bat egiteak zer nolako kostua izango lukeen jakiteko. Irteten den diru kopuruari Udalak aurre egiteko gaitasunik ez badu, finantziarioa bilatzeko prest gaude gu. Baditugu eskuartean ideia batzuk.

# GOKI



erreformak

*Gabon zoriontsuak!*

Olaso pol, 15 - 68 pab  
Tel. 943 74 42 23  
ELGOIBAR

Irizar, 1 beheia  
Tel. 943 76 53 42  
BERGARA

Errabal, 19 beheia  
Tel. 943 12 57 41  
SORALUZE

[www.gokierreformak.com](http://www.gokierreformak.com)

ILSko langileen partetik...

*Zorionak eta urte berri on!*

INDUSTRY  
LANGUAGE  
SERVICES



CAMPUS

## Miriam Parkhurst eta David Astasio gailendu dira asteburuan Elgoibarren jokatu dituzten bi xake txapelketetan

**B**i xake txapelketa jokatu zituzten asteburuan Elgoibarren: Xake Txapelketa Irekia, zapatuan, eta, Emakumeen Xake Txapelketa domekan. Bi xake txapelketa horiekin 29 urtean jokatu zuten Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketari erreleboa eman nahi izan dio Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak. Txapelketok "herrikoiak, parte-hartzaileak eta berdintasuna sustatzen dutenak" izan direla zehaztu dute.

Ia 50 xakelari lehiatu ziren Olaizaga kirodegiko kantxan jokatu zuten Elgoibarko Xake Irekian. Partida azkarretara jokatu zen lehia, hau da, 5 minutu jokalariko. Adin guztietako xakelariei zegoen irekia txapelketa, afizionatu zein profesionaleri. Euskal Herriko xakelariez gainera, nazioarteko xakelariak ere lehiatu ziren, besteak beste, Carlos Varas txiletarra eta Daniel Pinto boliviarra. Zubi Ondo taldeko bost xakelarik ere hartu zuten parte lehian. Irabazlea, baina, David Astasio gasteiztarra izan zen, Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketan behin baino gehiagotan parte hartu izan duen FIDE maisua. Carlos Varas sailkatu zen bigarren postuan eta Carlos Mate kantabiarra hirugarrengoa.



### Emakumeentzako txapelketa

Zubi-Ondo xake taldeak antolatuta, eta Udaleko Berdintasun Sailaren babesarekin, Emakumeen II. Xake Txapelketa jokatu zuten domekan, Elgoibarko Kultur Etxean. Hamaika emakume aritu ziren lehian, eta pronostikoak betez, txapelketa irabazteko faborito nagusia gailendu zen, Miriam Parkhurst mexikarra. Judith Goenaga eta Lucia Valor azkoitiarrak sailkatu ziren, hurrenez hurren, bigarren eta hirugarren postuetan. Alaitz Pascual gazte elgoibartarrak ere hartu zuen parte. Bera izan zen Zubi-Ondo taldeko ordezkari bakarra eta txapeldundorea izan zen 14 urtez azpikoetan.

### Urtarrilaren 2an berrituko dituzte Kirol Patronatuko abonauak

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak jakinarazi du urtarrilaren 2tik aurrera berritu dutela Patronatuaren urteko abonua, beraz, abonua berritu nahi ez duten guztiek Olaizaga Kirolegian bertan edo olaizagaharrera@hotmail.es helbide elektronikora idatzita jakinarazi beharko dute, 2022ko abenduaren 31 baino lehen. Abonauak ematen dituen zerbitzuak hauek dira: Olaizaga Kirolegiko igerileku estaliak, muskulazio-

gela, rokodromoa, saunak, aldagelak, squash eta frontoi txikia, eta Mintxetako aire libreko igerilekuak, muskulazio-gela, padel eta tenis pistak. Gogorarazi dute, bestalde, 2023an Mugiment txartela erabiltzen jarraitu ahal izateko, urtarrilaren 2tik aurrera, Elgoibarko Udal Kirol Patronatuko abonatuak Kirol Txartela Mugiment aplikazioan alta eman beharko dutela berriro.



## Emakumeen Lau t'erdiko Pilota Txapelketa ere izango du aurten San Anton Torneoak



**S**an Anton Pilota txapelketaren 30. edizioa jokatuko dute abenduaren 30etik urtarrilaren 13ra bitartean. Ohi moduan, afizionatu mailako pilotaririk onetsuenak ikusteko aukera izango da Ikastolako frontoian. Aurten, berrikuntza da mutilen txapelketaz gain emakumezkoena ere antolatu duela Lagunak Pilota Eskolak. Lau emakumez lehiatuko dira estreinakoz antolatu duten emakumeen Lau t'erdiko txapelketan. Naroa Agirrek Madalen Etxegarainen aurka jokatuko du abenduaren 30ean, 21:30etik aurrera jokatuko duten lehen finalerdian. Miriam Arrillaga eta Miren Larrarte arituko dira elkarren aurka

bigarren finalerdian, urtarrilaren 5ean. Gizonen txapelketari dagokionez, lehen finalerdian bi partida izango dira. Promesa mailakoan Amianok eta Lozak Apezetxea eta Peñalverren aurka jokatuko dute. Seniorretako neurketan Senar eta Lazkoz arituko dira gerriko gorriarekin eta Elola eta Lizeaga, urdinarekin. Urtarrilaren 5eko promesen arteko finalerdian Irribarria IIak eta Landak osatutako bikoteak Zubizarreta eta Beloki izango dituzte aurkari. Seniorretan Muruak eta Apezetxeak Mataren eta Ugartemendiaren aurka jokatuko dute. Finalak urtarrilaren 13an jokatuko dituzte, 21:30ean hasita.

### Mahai-ingurua eta txirrindularitza saio berezia antolatu zituen aurreko astean Lagun Taldeak



Ume baten ametsa izatetik profesional mailara ailegatzera bitartean dagoen bidez berba egin zuten zazpi txirrindularik, musika eskolako auditoriumean, Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolak eta Euskadi Fundazioak antolatutako mahai-inguruan. Solasaldia giro onean joan zela azaldu dute antolatzaileek, eta txirrindulari gazteentzako kontu interesgarri

ugari azaldu zituztela hizlariak. Bestetik, Eskola kirolaren jarduera osagarri gisa, txirrindularitza saioa antolatu zuen Arno Guraso Elkarteak zapaturako, Elgoibarko Lagun Taldea Txirrindularitza eskolaren laguntzarekin. Mendaro ikastolako eskola-umeentzako saioa izan zen, LH3tik aurrerako ikasleentzat, eta eskolako jolastokian egin zuten.

**LANA**

**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat. Gabonetako jai egunetan ere lan egiteko prest nago. **652 020 464**

Adinekoak zaindu edo etxeko garbiketa lanak egingo nituzke. **632 874 852**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Urteetako esperientzia daukat. **697 665 452**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Etxez-etxeko laguntzaile titulua daukat, eta esperientzia ere bai. **685 724 861**

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat. **652 020 464**

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat. **613 819 233**

**Eskaintza**

Fadek ile-apaindegirako langilea behar da. **624 646 336**

**GARAJEAK**

Garaje itxia alokatzen da Maalan, Malape taberna azpian. **666 269 636**


**ETXEBIZITZA**


Etxe polita alokatzen dut, San Frantzisko kalean. 4. pisua, igogailurik gabe. Logela bat, egongela, sukaldea... **660 042 159** (arratsaldez deitu)

Merkatu txikiko iragarkiari bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiari ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta).  
Autoak saltzea: 18€ .  
Bestelakoak: 10€.  
Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:  
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta).  
Autoak saltzea: 15€.  
Bestelakoak: 8€.  
Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzko Eskola Administrazioalari Larriko Eskola</p>  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etaldeen Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Gure etxepeko garajeetan ate mekanikoa jarri nahi dugu, eskuz ireki eta ixteko atea oso deserosoa delako. Jakin nahiko nuke zenbateko gehiengoa behar dugun erabaki hori hartzeko.</b></p> <p>Legedian egindako aldaketa batek arindu egin du lehen eskatzen zen bateratasun baldintza: Legeak dio baimen administratiboa behar dela, horretarako: lokal eta etxeak zatitzea lokal txikiagoak edo independenteak sortzeko, eraikin bereko ondoko lokala gehituz lokal horren azalera handitzeko edo lokal hori txikitzeko, eraikinean solairu berriak sortu edo estrukturan edozein aldaketa egiteko, terrazak ixteko edo eraginkortasun energetikoa hobetzeko edo zoruaren legea moldatzeko. Horretarako etxebateen hiru bostenen adostasuna lortu behar da, eta aldi berean, etxebate horiek partaidetza kuoten hiru bostenak ordezkatu behar dituzte.</p> <p><b>GOMENDIOA: Kasu hauetan guztietan kaltetuen baimena beharko da, eta jabeekideen komunitateak eta kaltetuak berak adostu beharko dituzte dagozkion kalteordainak zenbatekoak diren. Kuota berrien eta egingo diren obren gainean akordiorik ez badago, jabeekideen komunitateak adostu beharko du azken erabakia.</b></p> <p><b>ASOCIACIÓN GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</b></p>
---	---

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  688 634 044 bidalita.



Gaur, 4 urte!  
Ederki ospatzen  
gaude zure  
eguna! Muxu  
eta besarkada  
handi bat, maite  
zaitugunon  
partez!



Zorionak, **Beñat** eta **Nere**,  
zuen 10. eta 8. urtebetetzean!  
Ondo-ondo ospatu! Muxu handi  
bana, etxekoen partez.





Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO  
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

# Abenduak 24, zapatua



## Kalegoen plazan

-  **Olentzero eta Mari Domingi, Maalatik hasita**
-  **Tonbola eta opariak**
-  **Taloak**
-  **Sagardoa, zukuak, gozoak, ...**

*Elgoibartarrok plazan bildu  
eta elkarrekin egon  
eta gozatzeko eguna!*



## 24 ZAPATUA

**11:00** Elgoibarko Izarraren tonbola, Kalegoen plazan.

**11:15** Olentzero eta Mari Domingiri agurra egingo diete Maalan, eta ondoren, kalejira hasiko dute.

**13:00** Elgoibarko Udal musika bandaren kalejira. Segidan, Gabon kantik kantatuko dituzte, Kalegoen plazan.

**17:00** Olentzero eta Mari Domingiren kalejira, Mendaron. Moxuaneko paretik irtengo dira, eta 18:30ean ongietorria, Herriko Enparantzan. Eguraldi txarra egingo balu, 18:00etan Trinitate basilizan egingo liekete ongietorria.

**19:00** Elkartasun bertso eta kantak. Kalegoen plazan. Sarek antolatuta.

## 26 ASTELEHENA

**10:00-13:00 / 16:00-19:00**

Haurrentzako Gabonetako parkea. Hilaren 28ra arte egongo da. Ikastolako frontoian.

## 28 EGUAZTENA

**20:00** Gabonetako bertso jaialdia. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Herriko Antzokian.

## 30 BARIKUA

**19:00** EHBilduren lokal berriaren inaugurazioa. Santa Ana kalean, Euskadiko Kutxa alboko lokalean.

**22:00** San Anton pilota txapelketako finalerdiak. Ikastolako frontoian.

## 31 ZAPATUA

**9:00** Gabon Zahar Feria.

**12:30** Plazara Dantzara dantza emanaldia. Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolak antolatuta, Lekuederren.

**20:00** Elkarretaratzea. Maalako parkean. Sarek antolatuta.

## 5 EGUENA

**18:00** Errege magoen desfilea Elgoibarren. Santa Klaratik etorriko dira, Kalegoen plazara eta gero kalejira egingo dute herrian zehar.

**18:00** Errege magoen desfilea Mendaron.

## 6 BARIKUA

**11:00** Kristau ikasbidekoen meza. San Bartolome parrokian.

**12:30** Udal Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian.

## 7 ZAPATUA

**16:15** Bilbon presoen alde egingo duten manifestaziora joateko autobusa. Txankakuako geltokian. Jai Alai, Iturri eta Lanbroan eman behar da izena.



Zinea



'Los renglones torcidos de Diós'

23 barikua: 19:00  
26 astelehena: 21:00



'A todo tren 2'

30 barikua: 19:00  
2 astelehena: 21:00

<p><b>2022ko botika ordutegiak:</b> 09:00-13:00 / 16:00-20:00  <b>GUARDIAK:</b> Egunez: 09:00-22:00 Iluntzean: 20:00-22:00                  Larunbatak: 09:00-14:00 (■)</p>		
<p><b>ABENDUA</b></p> <p>23 BARIKUA 24 ZAPATUA</p> <p>25 DOMEKA 26 ASTELEHENA 27 MARTITZENA 28 EGUAZTENA 29 EGUENA 30 BARIKUA 31 ZAPATUA</p>	<p><b>Egunez</b></p> <p>■ Ibañez ■ Oruesagasti ■ Barrenetxea ■ Oruesagasti Arriola ■ Fernandez Yudego ■ Oruesagasti Barrenetxea Barrenetxea</p>	<p><b>Iluntzean</b></p> <p>Garitaonandia ----- ----- Arriola Garitaonandia Yudego Arriola Barrenetxea Barrenetxea</p>
<p><b>2022an urte guztian, gauzez: 22:00-09:00</b>  <b>Esther Mendinueta Berastegi - Urkizu pasealekua, 6 (Eibar)</b>  <b>943 820 106</b></p>		
<p><b>2023ko botika ordutegiak:</b> 09:00-13:00 / 16:00-20:00  <b>GUARDIAK:</b> Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)  <b>OHARRA:</b> 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.</p>		
<p><b>URTARRILA</b></p> <p>1.DOMEKA 2 ASTELEHENA 3 MARTITZENA 4 EGUAZTENA 5 EGUENA 6 BARIKUA</p>	<p><b>Egunez</b></p> <p>Barrenetxea Garitaonandia Arriola ■ Fernandez Yudego Barrenetxea</p>	
<p><b>2023 urte guztian, gauzez: 22:00-09:00</b>  <b>Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)</b>  <b>943 203 052</b></p>		
<p>■ Fernandez: Herriko Enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142</p>	<p>■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638</p>	<p>■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384</p>

**BARREneko harpidedunentzako oharra**

Buzoiko **B** pegatina falta bazaizu edo hondatuta baduzu, **BARRE**nen bulegora etorri eta berria emango dizugu. Banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea. Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.



Jose Ramon Cabrera



Iñaki Goitia

*"Egia absolutua! Aurrean duzuen haur honek emango dizue ezagutzera une bat itxaroten baduzue"*

**D**iotenez, Filosofia ez da inoiz egiatik hain gertu egon, filosofo bat, jakinduriaren grinaz gozotasun dionisiakoaz bezain mozkorturik, haur bat mozkortzeko ahaleginean atzemana eta baretua izan zen hartan baino. Egun-argiz eta Atenasko agoraren alboan izaki, inguruan egon zitekeen inori ez litzaioke eszena hura oharkabean pasatuko. Hamar bat pertsona gerturatu zitzaizkion jokaera hura gaitzeste aldera.

- Oh, atenastarrok! Hurreratu eta zorroztu belarriok ahal beste! Zinez diotsuet ez zaretela damu izango.

- Horrelako desohorerik, Acratoforo! Haur bat mozkortzea ere...! —oihu egin zuen haietariko batek.

- Bistakoa da urritasuna ez dagoela bere bertuteen artean. —entzun zen bildutako giza-taldetik.

- Oh, ez! Ez naiz ni izan mozkortu duena, Filosofia baizik, jakinduriaren eta egiaren maitalea!

- Nola ausartzen zara Filosofiaz baliatzen zure makurkeriari uko egiteko? —esan zuen emakume batek penaz.

- Burua galdu bide du... —erantzun zuen beste batek.

- Berdin zait desohore, mozkorkeria, erokeria edo bestelako akusaziorik entzutea nire familiaren zein nire izen onaren aurka! Ez zait axola hori bada ordaindu beharrekoa Atenasek jakin dezan gure aurretiko filosofoek, baita egungoek ere munduan beste edozer gauzaren gainetik desiratu dutena! Egia absolutua, atenastarrok! Egia absolutua! Aurrean duzuen haur honek emango dizue ezagutzera une bat itxaroten baduzue.

Bat-batean mututu ziren bertan bildutako guztiak. Zur eta lur gelditu ziren une batez, bere gorputz mehean mozkorkeriaren lehen zantzuak aurkezten zituen haur hari begira. Jarraian marmar eta gaitzespenak itzuli ziren.

- Ez duzue nire hitzean sinisten? Bidezkoa deritzot, nola ez. Sinetsi ezazue berean! —arrazoitu zuen Acratoforok suharki haurra seinalatzen zuen bitartean—. Ez al duzue entzun inoiz mozkorrek eta hurrek soilik diotela egia?



 **aldaz**  
hortz klinikak · clínicas dentales

***Gabon zoriontsuak eta urte berri on!***

**943 366 377**  
Lasarte-Elgoibar-Tolosa



**Gabon**  
zoriontsuak  
guztioi!

